



JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN LEGE-PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

I

Euskadiko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.38 artikuluan jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du ikuskizunen gaian, eta eskumen horren ondorioz eman da lege hau. Jendaurreko ikuskizunak eta Jolas jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legea onartzeko bidea eman zuen arau bera da. Lege hori tresna baliagarria izan da, eta horri esker, zegokion ezarpen-eremuko jarduerak arautzeko modua egon da, garai berriek zituzten eskakizunetara egokiturik.

Dena den, hamabost urte baino gehiago joan dira onartu zutenetik, eta gaur egun gizartean eta kulturaren dugun testuingurua kontuan izanda, hau da, aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak orokortu eta ugaritu egin direla kontuan izanda, gaia arautuko duen araudiak ere egungo egoerara egokitu beharra dauka, legeak eragiten dien eskubide eta sentsibilitate guztien arteko oreka lortzen saiaturik: batetik, zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak ditugu; bestetik, ikuskizunak antolatzen dituzten enpresari eta antolatzaileenak, eta, horiekin batera, herritarren eskubideak, hau da, etxebizitza batean bizi diren pertsonak, eta beren bizitza proiektua bizitzakalitate jakin batekin aurrera eramateko eskubidea duten herritarrak. Azken horiek ez dute herri edo hiri bateko elkarbizitzan ohikoa dena baino zama edo eragozpen handiagoa zertan jasan.

Era berean, legeak baldintza jakin batzuk jartzen dizkie establezimendu publiko guztiei, interes orokorrak hala eskatzen duelako, horietan egoterakoan edo horiez baliatzerakoan pertsonak segurtasunarekin zerikusia duen arazorik izan ez dezaten.

Bestalde, aurreko legea aplikatzerakoan ikasitakoak erakutsi duenez, beste kontu batzuk berrikusi beharra ere badago, segurtasun juridikoa handiagoa izan dadin edo hutsune batzuk desagerrarazteko, eta horri loturik dago, esate baterako, ikusle edo erabiltzaileen eskubide eta betebeharren araubidearena, edo zehapen-araubidearen gaia.

Orain arte esandakoak indarrean den araudia berrikusi beharra dagoela erakusten du, baina garbi asko dago, gainera, araudi hori beste lege baten bidez ordezkatu beharra ere badagoela, arau osoaren espiritua Europako Legebiltzar eta Kontseiluaren Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko abenduaren

12ko 2006/123/CE Zuzentaraura egokitzeko. Hori dela eta, lege hau zerbitzuei buruzko zuzentarau horretan esaten diren etara egokitu da, hau da, kokatzeko askatasuna eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna erraztu nahi ditu, zuzentarauak ere horren alde egin nahi duenez. Zuzentaraura egokitzearen kontua, orokorrean, administrazioari komunikatu beharra edo erantzukizun-adierazpena egin beharra eskatzen duen erregimena indarrean jarrita egin da, orain arte administrazioaren baimena eskatzen zuen araubideaz baliatu ordez. Aldaketa horren ondorioz, interesatuek beharrezkoa ez den izapide burokratikorik ez dute egin beharko, eta horri esker, izapideak egiteko prozedura sinpleagoa izango da.

Azken batean, gorago aipaturiko printzipioetan oinarritzen denez, lege honek ikuskizun eta jolas jardueren arloan zerbitzuak eskaintzen dihardutenen ekimen partikularraren alde egiten du, baina interes orokorraren alde ere aritu beharra dagoela ahaztu gabe, segurtasuna eta elkarbizitza zainduta.

Funtsezkoak diren aldagai hauek kontuan izanda eratu da legea:

a) Askatasun-printzipioaren eta segurtasun- eta bizikidetz-printzipioaren arteko oreka. Herritarrek aisialdirako eta dibertitzeko zer nahi duten aukeratzeko askatasuna izan behar dute, eta enpresek nahiz antolatzaileek askotariko ekitaldiak eskaintzeko askatasuna, horren muga bakarra interes orokorra eta pertsonen eskubideak errespetatu beharra izanik. Legeak baldintza eta betekizun batzuk jarri ditu, segurtasun eta elkarbizitzaren printzipioetan oinarriturik, hain zuzen ere, askatasun-printzipioa ikusle edo erabiltzaileek segurtasuna izateko duten eskubideaz, herritarren arteko elkarbizitzaz edo hirugarren batzuen eskubideez bateragarria izan dadin.

b) Herritarrei eman nahi zaie protagonismoa, eta horretarako, herritarrek erabiltzaile edo ikusle diren neurrian izango dituzten eskubide eta betebeharren karta bat idatzi da; dena den, kontsumoari buruzko araudi orokorraren arabera izan ditzaketen beste eskubide batzuk ere kontuan hartu beharko dira.

c) Ikuskizun eta jolas-jardueren titular eta antolatzaileei enpresa-jarduera horiek aurrera eramateko erraztasunak ematea, eta, esan den bezala, horretarako, arau orokor gisa, erantzukizun-adierazpena edo alde zuzeneko jakinarazpena egin beharko dute titularrek edo zerbitzua eskaintzen dutenek. Baimen-araubidea aurrerantzean arau orokorraren salbuespena izango da, eta kasu zehatz batzuetan baino ez da erabiliko, hau da, objektiboki hirugarrenentzako arriskua edo eragozpenak gerta daitezkeela uste den kasuetan.

d) Lokal publikoetako segurtasunaren estandar teknikoak indartzea, eta horrekin batera, ezintasunen bat edo bestelako arazoren bat duten pertsonak dena delako tokietan sartu ahal izatearekin zerikusia duten bestelako kontuak argitzea. Lizentzian edo alde zuzeneko baimenean oinarritzen zen araubidea erantzukizunpeko adierazpenaren edo alde zuzeneko jakinarazpenaren araubidearekin ordezkatzeak ez du esan nahi ikuskizunetarako, dena delako jardueretarako eta establezimenduetarako eskatuko diren segurtasun-baldintzak eta kalitatea txikiagoa izango direnik, eta, horretarako, legeak kontrola eta ikuskatzeko sistema zorrotza du jasota.

e) Erakunde bakoitzak izango dituen eskumenak eta eginkizunak bereizi egin dira erakunde maila guztien artean, eta hori subsidiariorotasun-printzipioa eta herritarrekiko gertutasuna kontuan izanda egin dira. Hori dela-eta, kontrolarekin zerikusia duten eskumen gehienak udalen esku utzi ditu legeak, nahiz eta, kasu batzuetan, arrazoi objektiboen ondorioz, eginkizun hori Eusko Jaurlaritzan eskumena duten organoei eman, berariaz. Bukatzeko, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua izango da administrazio publikoen arteko lankidetzaren instituzionalizatuko duen organoa.

II

Legeak 71 artikulua ditu, bost tituluan bilduak, eta xedapen gehigarri bi, zazpi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen; horiekin batera, eranskin bat ere badauka, jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publikoen katalogoa jasotzen duena.

Legearen I. tituluan xedapen orokorrak daude jasota.

Titulu horretan legearen xede edo gaia zein den zehazten da, eta legean oinarritzeko diren hiru kontzeptuen definizioak ere jaso ditu: jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publiko dira kontzeptu horiek, eta legearen ezarpen-eremua eta salbu geratutakoak ere aipatzen ditu tituluak. Horrekin batera, katalogo bat ere jaso du eranskin batean, erabat zehatza izateko asmorik ez duena, eta debekuak ere zehazten dira.

Era berean, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua ere arautzen du; administrazioen arteko lankidetzarako organoa izango da.

II. tituluan, jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren antolaketa eta garapena arautzen da.

Titulu horretan, alde batetik, ikusleen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak jasotzen dira, baina baita antolatzaile, titular, artista, interprete, musika-jotzaile eta gainontzeko langileenak ere. Gainera, interesatuak izan daitezkeen beste pertsona batzuen eskubideak ere jasotzen ditu, pertsona horien bidezko interesei eragiten zaien kasuetarako.

Esandakoez gainera, ikuskizun eta jolas-jarduerak eta horiek aurrera eramateko baliatzen diren establezimendu edo guneei bete beharreko baldintza eta betekizunak ere arautu dira titulu horretan.

Horren jarraian, artikulua batzuetan, eskaintzen diren zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea hobetzeko asmoa duten zenbait alderdi zehazten dira, bai eta zerbitzuok eskaintzen dituzten erantzukizun eta profesionaltasunarekin zerikusia duten kontuak edo ikusleen eskubideekin loturik daudenak ere. Hala, hauek dira artikulua horietan araututako gaiak: ikusleei edo publikoari establezimendu, ikuskizun eta jolas-jarduerari buruz eman beharreko informazioa eta publizitatea; sarrera eta txartelen salmenta; sarrerak zaindu eta

kontrolatu beharra; sarrera onartzeko baldintzak eta ukatzeko baldintzak; lehen sorospena emateko orduan dauden betebeharrak eta larrialdiko ebakuazioak; edo aseguru eta fidantzak eskatzea. Esandakoez gainera, kontuan hartu da neurri bereziak hartu beharko direla haurrak eta gazteak babestearen arloan.

III. tituluan, establezimendu publikoak irekitzeko araubidea eta jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak aurrera eramateko araubidea zein izango den ere zehazten da. Araubide horien oinarrian ondorengo arau orokorra egongo da: legeak besterik esaten ez duen artean, ezarriko den araubidea erantzukizunpeko adierazpenarena edo, hala behar duenean, aldez aurreko jakinarazpena izango da.

Ireki nahi den establezimendu publikoa 700 lagun baino gehiagorentzako bada, legeak dio aukera egongo dela Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen organoak egitasmo horiei buruzko txostena egin eta neurri zuzentzaileak proposatzeko. Era berean, Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen organoak administratiboki esku hartzeko aukera izango du araubide berezia duten establezimenduen kasuan, udal-lizentzia eskuratu behar izateaz gainera.

Gainera, administrazioaren baimena behar izango dute aire libreko ikuskizun eta jarduerak, baldin eta instalazioak erabili behar badituzte.

Era berean, udal-administrazioaren baimena behar izango dute terrazek, kaleko mahaitxoek eta ferietako barraka eta azoketako atrakzioek. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren baimena behar izango dute (ikuskizunen edo bide-segurtasunaren arloko eskumena duen organoarena) zezenketekin zerikusia duten ikuskizun eta festek, ikuskizun piroteknikoek edo herri arteko kirol-probek.

IV. titulua zaintza, kontrol eta ikuskatzeari buruzkoa da, eta hiru kapitulutan dago banatuta; lehenengoan xedapen erkide batzuk daude jasota, bigarrena ikuskatzeko ahala gauzatzeari buruzkoa da, eta hirugarrena, segurtasun-neurriak hartzeari buruzkoa.

Kapitulu osoak oinarrian duen abiaburuko printzipioa da jarduerari hasiera ematea baimendu zuten baldintzak mantentzea eta berrikustea titularraren edo antolatzailearen betebeharra dela, nahiz eta administrazioak ikuskatzeko ahala izango duen.

Orokorrean, ikuskatzeko ahala erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena jasotzea dagokion organoak izango du, edo, hala behar duenetan, baimena emateko eskumena duen organoak. Dena den, arau horrek salbuespenak izango ditu; izan ere, Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumenak dituen organoak legez ahalmena du establezimendu publikoak ikuskatzeko, kontuan izanda lokalean zenbat lagun sartzen diren.

Esandakoaz gainera, ezinbestekoa da lankidetzeta-bideak jartzea, ikuskatzeko orduan nahasketa edo bikoizketarik gerta ez dadin; horretarako, legeak aurreikusten du ikuskatzearen arloan Eusko Jaurlaritzak eta udalek elkar

banatutako plan eta programak garatu beharko dituztela, bakoitzak eman beharreko pausoak koordinatu eta ikuskatzean antzeko irizpide eta metodologiak erabiltzeko.

Titulu honetan administrazio-poliziarekin loturik dauden neurriak ere jaso dira (nahitaez zehapen-araubideari lotuak ez daudenak); horien barruan sartzen dira, esate baterako, ikuskizun edo jolas-jarduera bat aurrera eramaten ari den artean ikusle edo erabiltzaileen segurtasuna babesteko polizia-zaintza berezia eskaintzeko aukera, esate baterako, futbol edo saskibalo partiduetan. Kasu horietarako aurreikusi da, hain zuzen ere, tasa eta prezio publikoen legean aldaketa bat sartzea.

V. tituluaren legearen zehapen-araubidea arautu da. Lau kapitulutan dago banaturik titulua, eta ondorengoak zehazten dituzte, hurrenez hurren: arau-hausteen tipifikazioa, zehapen-motak, preskripzio- eta iraungitze-araubidea, eta eskumenak nahiz prozedura.

Legearen arabera, arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izango dira, betiere proportzionaltasun-irizpideak zainduta. Beste horrenbeste esan daiteke egongo diren zehapenei buruz; hala, kasu horretan azpimarratzekoa da ikusle, bertaratu edo erabiltzaileek egindako arau hausteen kasuan, diruzko zehapenez gain, gizarteratzeko edo hezteko zehapenak ere jartzeko aukera egongo dela, egoki bada, arau-hauste izan daitezkeen ekintzetarako jarrera aldarazte aldera. Hezkuntzaren arloko antzeko neurria dago aurreikusita, baina isunaren bidezko zehapenaren ordezkotako gisa, ondorengo arau-hauste arina egiten denean: aire librean jolas-jarduerak aurrera eraman eta horietan alkohola edatea, hori berariaz debekaturik badu ikuskizuna aurrera eraman den lekuko udalak, edo kasuan kasuko udal-araudi berezia kontuan izan gabe eraman bada aurrera.

Legeari zehaztuta dago zehapenen arloan zein eskumen izango dituzten udalak eta Eusko Jaurlaritzak, eta, horrekin batera, espedienterik bat irekiz gero, elkarri horren berri eman beharko diotela ere jasotzen du.

Gainera, arau-hauste eta zehapenen erregistro bat izan beharra ere aipatzen du, arauak aplikatu ahal izateko eta arauak behin baino gehiagotan urratu ote diren jakin nahiz desgaitzeko zehapena beteko dela ziurtatzeko.

Bukatzeko, xedapen gehigarri, xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile eta azken xedapenekin batera, legearen eranskin bat jaso da, eta bertan, jendaurreko ikuskizun, jolas jarduerak eta establezimendu publikoen katalogoa jaso da, legea zein jarduerari ezarriko zaien garbi uzteko.

I.- TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. ARAUAREN XEDEA, EZARPEN-EREMUA ETA HELBURUAK

1. artikulua.- Xedea

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan aurrera eramaten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, eta, era berean, ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten establezimendu publiko nahiz gune irekiek zein baldintza eta betekizun izango dituzten ere arautzea; berdin izango dio leku horien titularrak edo antolatzaileak erakunde publikoak diren, pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, irabazteko asmorik duten edo ez, nahiz ohiko ikuskizunak edo noizean behingoak diren.

2. artikulua.- Definizioak

Lege honen ondorioetarako, definizio hauek eman dira:

- a) Jendaurreko ikuskizunak: Ikusleak biltzen dituen gertakari oro da, baldin eta arte, kultura, kirol edo antzekoekin zerikusia duen errepresentazio, erakusketa, jarduera, distrakzio edo proiektioa bada, antolatzaile batzuek emana edo antolatzaileok eskatuta artista, kirolari nahiz sortzaileraren batek emana, leku itxi edo ireki batean nahiz aire zabalean edota bide publikoan, eta instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan.
- b) Jolas-jarduerak: Parte hartzeko asmoz jendea biltzen duen jarduera oro, edo antolatzaileek eskainitako zerbitzuak jasotzeko direnak, baina aisiarekin, denbora pasarekin edo dibertsioarekin zerikusia dutenak, besterik eskaintzen ez dela edo aldi berean beste jarduera batzuk ere badaudelarik.
- c) Establezimendu publikoak: Edozein eraikin, lokal, leku edo instalazio, jendearentzat irekia dena eta ikuskizunak eskaini edo jolas-jarduerak egiteko erabiltzen dena.
- d) Gune irekiak: Gune, leku edo bide publikoak, jabetza publiko edo pribatukoak, jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduerak aurrera eramateko erabiliko direnak, baina ez dute izango ez azpiegitura ez instalazio finkorik horretarako.
- e) establezimendu publikoaren titularra: Lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak,edozein titulu juridikoren bidez.

f) Antolatzaileak: Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, jendaurreko ikuskizunak nahiz jolas-jarduerak burutu edo sustatzen dituztenak, irabazteko asmoa dutela edo halako asmorik gabe.

g) Artista, interpretatzaile edo jotzaileak: Dena delako ikuskizun edo jolas-jardueran jendaurrean agertzen diren pertsonak, ikusleek ondo pasa dezaten edo aisialdiaz goza dezaten; berdin dio hori egiteagatik dirurik jasotzen duten edo ez.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua

1. Lege honetan arautuko diren jendaurreko ikuskizunak, jolas-jarduerak eta establezimenduak legearen eranskineko katalogoan jasota daudenak izango dira. Katalogo hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez aldatu eta garatzeko aukera egongo da, aldez aurretik Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluak txostena idatzi ondoren.

Lege hau oinarri hartuta emango diren baimen guztiek, eta baita erantzukizunpeko adierazpenek eta aldez aurreko jakinarazpenek, izenei eta definizioei dagokienez, lege honen eranskineko katalogoan jasotzen direnekin bat etorri beharko dute.

2. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira erabat pribatuak diren ospakizunak, familiaren baitakoak edo sozialak, edozeinek parte hartzeko modukoak ez badira; biltzeko eta manifestatzeko eskubidea gauzatzeko asmoz egindako jarduerak; eta erlijio ospakizunak, gurtza zentroetan egiten diren jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak salbu.

Dena den, ospakizun edo jarduera horiek ere herritarren segurtasuna babesteko legerian esaten dena bete beharko dute, eta burutzen diren leku eta establezimenduetan segurtasun- eta osasun kontuengatik eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, lege honetan, legea garatuko duten erregelamenduetan eta ezartzekoa den araudi berezian esaten denaz bat.

3. Lege hau beste batzuen ordeztatik aplikatzekoa izango da era guztietako jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publikoetan, kasuan kasuko legerian aurreikusi gabe dauden kontuetan.

4. artikulua.- Helburua

1. Lege honen helburua da jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak modu egokian aurrera eramatea erraztea, parte hartzaileen eta bertaratutakoen integritateak arriskurik izan ez dezan, herritarren arteko elkarbizitza bermatuta egon dadin eta segurtasuna eta ordena publikoa nahas ez dadin.

2. Administrazio publikoek eta ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek lege hau garatu

eta aplikatzeko orduan, ondoren zehazten diren printzipio gidariak izango dituzte gogoan:

- a) Ikuskizun eta jolas-jardueretan ikusle, parte hartzaile eta erabiltzaile direnek elkarbizitza baketsua eta ordenatua izatea.
- b) Jarduera horiek aurrera eramango diren lekuetatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak errespetatzea.
- c) Establezimendu publikoetan, jendaurreko ikuskizunetan edo jolas-jardueretan ikusle, erabiltzaile edo langile diren pertsonen segurtasuna eta osasuna zaintzea.
- d) Ekipamenduen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kalitatea, erosotasuna eta ingurumen arloko jasangarritasuna bermatzea.

5. artikulua. Debekuak

1. Debekaturik egongo dira ondorengo ikuskizun edo jolas-jarduerak:

- a) Delitu izan daitezkeenak.
- b) Indarkeria, arrazakeria, xenofobia, sexismoa edo beste edozein bereizkeria modu sustatu edo gizakiaren duintasunaren aurka egiten duen jarduera oro.
- c) Haurtzaroa eta nerabezaroa babestearen aurka egiten duen jarduera oro.
- d) Animaliak babesteko araudia betetzen ez duen jarduera oro.
- e) Zezen-ikuskizunak, ez badira dagokien araudi bereziarekin bat aurrera eramaten.
- f) Euskadiren kultur ondarearen edo natura-ondarearen zati diren ondasunetan aurrera eramaten direnak, baldin eta duten babes-araubidea betetzen ez bada edo ez bada bermatzen kalterik ez dutela jasango.
- g) Debekatuta egongo da ikuskizunotan edari alkoholduak kontsumitzea, kontsumo hori berariaz debekatuta baldin badauka bertako udalak, edo udaleko araudi espezifikoaren bizkar egiten bada.

2. Debekatuta dauden jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak eskaini edo burutzen dituzten establezimendu, toki, lokal edo instalazioak itxi egongo ditu eskumena duen agintaritzak.

II. KAPITULUA. JENDAURREKO IKUSKIZUN ETA JOLAS JARDUERETARAKO EUSKAL KONTSEILUA

6. artikulua.- Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua

1. Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua lege honetan jasotako gaiei buruz aholku eman, azterlanak egin, koordinatu eta laguntza eskainiko duen organoa izango da. Kontseilu hori Eusko Jaurlaritzan jendaurreko ikuskizunen eskumenak dituen sailari atxikirik egongo da.

2. Eskumen hauek izango ditu kontseiluak:

a) Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren arloan emango diren xedapen orokorren proiektuei buruzko txostenak idaztea.

b) Euskal administrazio publikoek ikuskizun eta jolas-jardueren arloan aurrera eramane beharko dituzten jarduerak koordinatuak izan daitezela sustatzea.

c) Irizpenak eta txostenak egitea, galderei erantzutea eta aholkularitza eskaintzea, Kontseiluan kide diren erakundeek hala eskatzen diotenean, lege honen aplikazio- eremukoak diren gaiei buruz.

d) Azterlanak idatzi eta egoki iritzitako proposamenak egitea lege honetan aipatzen diren helburuak hobeto lortu ahal izateko.

e) Establezimenduak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak ikuskatzeko plan eta programak egin ahal izateko irizpideak eta helburuak proposatzea.

f) Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumenak dituen zuzendaritzak sektorearen egoerari eta bilakaerari buruz urtero idatziko duen txostenaz eztabaidatu eta, hala behar duenean, onartzea.

g) Erregelamendu bidez ematen dioten beste edozein eskumen.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko da nola egongo den osaturik Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua, eta baita nola antolatuko den eta zein funtzionamendu-araubide izango duen. Kontseiluko kideen artean, ordezkari izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, Lurralde Historikoetako hiriburu eta udalek, ordezkari handiena duen euskal udalen elkarteak, gaiak eragiten dion sektore ekonomikoaren interesak ordezkatzeko dituzten elkarteak, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen aldeko elkarteak.

II. TITULUA

JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK ANTOLATU ETA GARATZEA

I. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. artikulua.- Ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko araudiaz bat aitortuta dituzten eskubideez gainera, ikuskizunen eta jolas-jardueren ikusleek eta erabiltzaileek nahiz establezimendu publikoetako bezeroek eskubideok izango dituzte:

- a) Establezimenduan edo jendearentzat irekia den gunean onartua izateko eskubidea, bertaratuko diren gainontzeko guztien baldintza objektibo beretan, betiere edukieragatik posible bada eta sartzen ez uzteko arrazoietakoren bat gertatzen ez bada. Arrazoiok erregelamendu bidez zehaztuta egongo dira, segurtasun-kontuak, ordena publikoa nahastea saihestea edo onartzeko baldintza objektiboak aintzat hartuta.
- b) Ikuskizuna ikusteko edo jolas-jardueran parte hartzeko eskubidea, eta horiek guztiak, gainera, osotasunean enpresak iragarritako moduan eta baldintzetan izateko eskubidea.
- c) Zerbitzu orokorrak enpresak instrukzio eta arau berezien bidez zehaztutako moduan eta enpresak jarritako mugekin erabiltzeko eskubidea.
- d) Ordaindutako kopurua berreskuratzeko eskubidea, iragarritako ikuskizuna edo jolas- jarduera aldatu edo bertan behera geratzen bada; erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan egingo da hori, eta ikuskizun edo jolas-jarduera bakoitzean aplikatzekoa izango den araudian aurreikusitakoari kalterik egin gabe.
- e) Enpresak erreklamazio-orriak eskura jartzeko eskubidea, orriotan egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izateko.
- f) Errespetuzko tratua jasotzeko eskubidea, ez nolana hiko ez eta bereizkeria eragiten duena.
- g) Ikuskizun eta jolas-jarduerari buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun printzipioen arabera izateko eskubidea, eta publizitate horrek okerreko iritzia edo iruzurra eragin dezakeen informaziorik ez izateko eskubidea.

8. artikulua.- Ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak

Ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleek eta bertaratuek nahiz establezimendu publikoetako bezeroek betebeharrak izango dituzte:

a) Legeak jarritako mugen barruan, antolatzaileek finkatutako baldintzak edo arauak betetzeko, dena delako lekuan sartzeari dagokionez.

b) Dagokien lekuan egotekoa, edo kasu bakoitzean ikusle, bezero edo erabiltzaileentzat jarriko diren guneeetan egotekoa, beste eginkizun batzuetarako diren guneeetan sartu gabe.

c) Enpresak emandako jarraibide bereziak edo arauak betetzeko, ikuskizuna edo jarduera aurrera eramateko.

d) Iragarritako programa, ikuskizun edo jarduera bete dadila errespetatzeko; ezin izango dute eskatu aldez aurretik esandakoa aldatzeko.

e) Ikusleak agertokira edo ikuskizunaren lekura ez sartzekoa, non eta ez den ikuskizunaren parte.

f) Ikuskizun eta jolas-jardueretarako diren establezimenduetan ez erretzea errespetatzea, gaiari buruz indarrean den araudian esaten denaz bat.

g) Gainontzeko ikusleentzat edo enpresako langileentzat arriskutsua edo deserosoa izan daitekeen edo ikuskizun edo jarduera aurrera eramatea zaildu dezakeen ezer egitea saihestea.

h) Ez eramatea inolako armarik ez eta indarkeria eragiteko moduan erabil daitekeen bestelako objekturik, eta Konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubideen kontrako ekintzetara dei egiten duten jantzi, sinbolo edo gauzarik ere ez erakustea, bereziki, indarkeria, xenofobia edo bazterkeriaren alde dei egiten duen ezer.

i) Establezimendu publikoetan lan egin edo jendaurreko ikuskizunetan nahiz jolas- jardueretan diharduten artista, interprete edo jotzaileak eta gainerako langileak errespetatzea.

j) Ikuskizun edo jardueraren hasiera eta amaierako ordua errespetatzea.

k) Establezimenduan sartu edo bertatik irtetean, herritarren elkarbizitzaren alde egingo duen jarrera izatea, eta auzokoen atsedena ez nahastea, ez eta kaleetako altzariak kaltetzea ere, ikuskizuna edo jarduera izango den inguruetan.

9. artikulua.- Beste interesdun batzuen eskubideak

1. Jendaurreko ikuskizunak direla, jolas-jarduerak direla, edo jendeari irekita dauden establezimenduen funtzionamenduagatik eskubideak edo bidezko interesak kalteturik izan

ditzaketen pertsonak eskubide hauek izango dituzte:

a) Lege honetan aipatzen diren lizentziak edo baimenak emateko prozeduretan, interesatu gisa agertzeko eskubidea.

b) Establezimenduek edo jendearentzat irekita dauden guneek sortu eta auzokideen elkarbizitzari eta atsedenari eragiten dioten eragozpenak salatzekeo eskubidea, eta kasu horietan, eskumena duen administrazioak probak egin ditzala lortzeko eskubidea, beharrezko baliabide teknikoak erabilita, salatutako eragozpen horiek benetan badirela frogatu ahal izateko; era berean, lortutako emaitzen arabera jarduteko eskatu ahal izango diete agintari horiei, aurrerantzean halakorik gerta ez dadin.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren salaketak etxebizitza baten barruan entzuten diren zarategatik baldin badira, salaztaileek baimena eman beharko diete administrazioko ikuskatzaile eta teknikariei etxe barruan sartzeko, hori egitea beharrezkoa bada espedientea irekitzeko. Sartzeko baimenik ematen ez badute, hasitako jardunbideak artxibatu egingo dira.

10. artikulua.- Antolatzaile eta titularren eskubideak

Titularrek eta antolatzaileek, enpresa-askatasunaren barruan, eskubideok izango dituzte:

a) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera aurrera eramateko eskubidea, ezartzekoa den araudian ezarritakoaz bat eta, hala behar duenetan, kasuan kasuko baimenean, erantzukizunpeko adierazpenean edo aldez aurreko jakinarazpenean ezarritakoaz bat.

b) Jendearentzat irekita dagoen establezimenduaren, ikuskizunaren edo jardueraren funtzionamendua segurtasun eta kalitatezko baldintzetan eskaintzea bermatu ahal izateko egoki iritzitako neurriak hartzeko eskubidea.

c) Egoki iritzitako prezioak finkatzeko eskubidea.

11. artikulua.- Titularren eta antolatzaileen betebeharrak

1. Titular eta antolatzaileek izango dute ikuskizuna edo jarduera burutzearen ondoriozko erantzukizuna, eta pertsona horien zabarkeria edo aurreikuspen ezagatik kalteren bat gertatuko balitz, erantzun egin beharko lukete kalteongatik.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den agindua hobeto betetzeko, titular edo antolatzaileak ondoren zehazten diren betebeharrak izango ditu:

- a) Segurtasun, osasun eta zaratak neurtzearen arloan, orokorrean ezarrita dauden neurri guztiak betetzea, eta baita kasuan kasuko lizentzia eta baimenetan eskatuko diren neurri berezi guztiak betetzea ere.
- b) Jendurreko ikuskizunak burutu edo jolas-jarduerak aurrera eramatearen ondorioz, establezimendu publikotik edo bere instalazio gehigarrietatik zaratak eta eragozpenak sortzea saihestea, horiek lokalaren kanpoaldeari eragiten badiote behintzat.
- c) Establezimendu eta instalazioak uneoro funtzionatzeko egoera ezin hobean izatea uneoro, eta indarrean den araudiaz bat, derrigorrezkoak diren egiaztapenak egitea.
- d) Eskumena duten agintariak erabakitako ikuskapenak egitea baimendu eta erraztea.
- e) Jendeari jakinarazitako ikuskizun eta jolas-jarduerak bere horretan mantendu eta eskaintzekoa, justifikatutako ezinbesteko kasuetan edo ezustekoetan izan ezik, halakoen ondorioz ikuskizunok aurrera eramatea ezinezko gerta baitaiteke. Dena den, kasu horietan, ikuskizun edo jolas-jarduera bakoitzean ezartzekoa den araudiak dioena bete beharko da.
- f) Jendeari sartzen uztekoa, lege edo erregelamendu bidez zehazten diren kasuetan izan ezik.
- g) Bertaratzen direnak errespetuz eta begirunez hartzea.
- h) Ez baimentzea, ezta onartzea ere, legez kanpoko jarduerarik, batez ere drogen kontsumo eta trafikoarekin zerikusia dutenak.
- i) Lege honetan aurreikusitako arau-hausteak ez baimentzea, ezta onartzea ere, ikuskizunean edo jardueran parte hartzen dutenei, haien mende daudenei eta ikusleei edo jardueren erabiltzaileei.
- j) Autobabeserako eta lokala jendez husteko neurriak hartu eta betearaztea, indarrean den araudiak ematen dizkieten eginkizunak eta erantzukizunak aurrera eramanda.
- k) Dena delako ikuskizuna edo jolas-jarduera antolatu eta egitearen ondorioz sortutako kalte- galerengatik erantzutea, ezartzekoa den araudian jasotzen den moduan.
- l) Lizentzien eta baimenen titularrak edo horien helbideak aldatu egiten badira, eskumena duten administrazioei horren berri ematea, erregelamendu bidez zehaztuko den epearen barruan.
- m) Establezimendu publikoak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak ezinduentzako irisgarritasun baldintza unibertsaletara egokitzea, indarrean den araudiaz bat.

n) Erabiltzaileen esku erreklamazio-orriak izatea, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzak betetzen dituztela.

ñ) Kontsumitzaileen nahiz erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko araudian jasota dauden betebeharrak betetzea.

o) Lege honek eta gai honetan ezartzekoa den gainerako araudiak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea.

12. artikulua.- Artista, interprete, jotzaile eta gainontzeko langileen eskubideak

Establezimendu publikoetan lan egin edo jendaurreko ikuskizunetan nahiz jolas-jardueretan diharduten artista, interpretatzaile edo jotzaile nahiz gainontzeko langileek eskubideok izango dituzte:

a) Kontratutako ikuskizun edo jarduera aurrera eramateko eskubidea, kasu bakoitza arautzen duten arauekin eta artista edo antolatzaileekin hitzartutako programa edo gidoian esaten denaz bat.

b) Ikuskizunari uko egiteko edo ikuskizuna aldatzeko eskubidea, bidezko arrazoi batengatik edo ezinbesteko arrazoi batengatik. Kasu guztietan, bidezko arrazoia izango da segurtasun edo higiene-baldintzak ez betetzea edo behar bestekoak izatea; horiek zertan diren jakiteko, artista, interpretatzaile edo jotzaileek ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi aurretik egiaztatzeko aukera izango dute.

c) Titularrek, antolatzaileek, ikusleek eta erabiltzaileek errespetuz tratatzeko eskubidea.

d) Ikuskizuna edo jolas-jarduera eskaini ahal izateko beharrezko babesa jasotzeko eskubidea, eta beste horrenbeste izatea establezimendu edo jendaurreko lekura sartzeko eta bertatik irteteko ere.

13. artikulua.- Artista, interpretatzaile, jotzaile eta gainontzeko langileen betebeharrak

Establezimendu publikoetan lan egin edo jendaurreko ikuskizunetan nahiz jolas-jardueretan diharduten artista, interpretatzaile edo jotzaile nahiz gainontzeko langileek betebeharrak izango dituzte:

a) Ikusleak errespetatzeko betebeharra.

b) Kontratutako jarduera eskaintzeko betebeharra, aurreko artikuluko 1.a) idatz-zatian ezarritako baldintzekin bat.

II. KAPITULUA. IKUSKIZUNEK ETA LOKALEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

14. artikulua.- Baldintza teknikoak

1. Jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerek eta horiek egiten diren establezimendu edo espazio publikoek beharrezko segurtasun-, osasun- eta higiene-baldintzak beteko dituzte, baita irisgarritasun baldintza unibertsalak ere, pertsonen eta horien ondasunen segurtasuna bermatzeko eta bertaratzen direnei eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko; gainera, sektorean aplikagarri den araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzak beteko dituzte.

2. Baldintza horien artean sartzen dira, besteak beste, ondoren azaltzen direnak, baita lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan ezartzen diren eskakizunak eta gainerako ordenamendu aplikagarrian ezartzen direnak ere:

a) Bertaratutako publikoaren, langileen eta jotzaileen segurtasuna eta ondasunen babesa.

b) Egituren sendotasuna eta instalazioen funtzionamendu egokia.

c) Instalazio elektrikoen baldintzak eta bermeak.

d) Suteak eta jarduerari dagozkion gainerako arriskuak saihestea eta horietatik babestea, eta kanpoko laguntzaren irisgarritasuna erraztea.

e) Osasun-, higiene- eta akustika-baldintzak, lokalek hirugarrenak ez gogaitzeko bete behar dituzten intsonorizazio-baldintzak berariaz zehaztuta, zaratei buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

f) Hirigune zein naturguneen eta historia-, arte- eta kultura-ondarearen babesa.

g) Ezinduentzako irisgarritasun-baldintza unibertsalak eta gozamen-baldintzak, irisgarritasunari eta arkitektura oztopoak kentzeari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, ezinduek ikuskizuna benetan gozatu ahal izan dezaten.

h) Autobabes-plana, indarrean dauden autobabes-arauen arabera.

i) Establezimendu, lokal edo instalazioaren edukiera.

j) Indarrean dagoen edo aplikagarri den araudian ezarritako beste edozein.

3. Udalek, ordenantza edo erregelamenduen bidez, debekuak, mugak edo murrizketak jartzeko aukera izango dute, establezimendu publiko eta jolas-jarduera gehiegi pilatzea saihesteko edo beste giza jarduera nahiz jarduera sozial batzuekin bateragarriak izatea bermatzeko.

15. artikulua.- Informazioa eta publizitatea

1. Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren establezimendu publikoetako sarreran, kartel edo plaka bat jarriko da, ondo ikusteko eta irakurtzeko moduan, eta, bertan, gutxienez honako hauek jakinaraziko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan: establezimenduaren izena, lizentziak onartzen dituen jarduera eta ikuskizunak, erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena, ordutegia, baimendutako gehienezko edukiera, eta hamasei edo hamazortzi urtetik beherakoentzako sartzeko debekua, hala dagokionean.

Halaber, ostalaritzako lokalek eta jendaurreko ikuskizunak eskaintzen dituzten lokalek identifikazio bereizgarri bat jarri beharko dute. Bereizgarri horretan bakoitzari dagokion taldea zehaztuko da, garatutako jardueraren arabera.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, ikuskizuna edo jolas-jarduera antolatu duenak informazio hau jarri behar du publikoak ondo ikusteko eta irakurtzeko moduan:

a) Dagokion gaikuntza egiaztatzen duen agiriaren kopia: erantzukizunpeko adierazpenarena edo aurkeztutako aldez aurreko jakinarazpenarena, edo emandako baimenarena, kasuan kasu.

b) Telefono-zenbakia, posta-helbidea, fax-zenbakia edo posta elektronikoko helbidea edo, baldin badu, webgunea, erreklamazioak aurkeztu edo informazioa eskatu ahal izateko.

c) Erreklamazio-orriak daudela.

d) Irekitzeko eta ixteko orduak.

e) Baimendutako gehienezko edukiera.

f) Sartu ahal izateko baldintzak, sartzeko mugak adierazita, halakorik badago.

g) Ikuskizuna edo jarduera behar bezala joan dadin bete beharreko arau bereziak edo jarraibideak, halakorik badago.

3. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak jakitera emateko iragarkiek, kartelek eta programek informazio hau eman behar dute gutxienez:

a) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera antolatu duenaren izena, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

b) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera zein motatakoa den eta jardule nagusiak nortzuk diren.

c) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera zein egunetan eta lekutan izango den; ibilbidea, hala badagokio; ordutegia, eta gutxi gorabeherako iraupena.

d) Sartu ahal izateko baldintzak; sarreraren prezioak, dagozkien zergak barne, hala badagokio, eta sarrerak erosteko bideak edo lekuak.

e) Jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren adinkako sailkapena, hala badagokio.

4. Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen sailak artikulu honetan aurreikusitako informazio- eta publizitate-betebeharrak betetzeko eredu normalizatuak argitaratu ahalko ditu.

5. Jarduera jakitera emateko kartelak, iragarkiak eta programak edozein bitartekoz inprimatu, banatu edo zabaltzen dituzten enpresek lagundu egin behar diete herri-administrazio eskudunei iragarritako ikuskizun edo jardueraren antolatzaileak identifikatzen.

16. artikulua.- Sarrera eta txartelen salmenta

1. Sarrera, txartelen eta abonuen salmentak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Antolatzaileek behar bezala identifikatu behar dute publikoari zuzenean salduko zaizkion sarrerak nola eta non eros daitezkeen.

b) Zuzenean salduko zaio publikoari erregelamendu bidez ezartzen den ikuskizunaren edukieraren gutxieneko portzentajea.

c) Ezin da kobratu sarrerengatik edo abonamenduengatik publizitatean iragarritakoa baino gehiago.

Dena den, erantzukizunpeko adierazpena edo alde zuzeneko jakinarazpena jaso behar duen edo baimena eman behar duen organoak, dagokionaren arabera, sarreraren edo abonuen salmenta komisioiduna eta errekaraguduna baimendu dezake.

d) Debekatuta daude sarreraren edo abonamenduaren errekaragudun birsalmenta, baimendu gabeko salmenta komisioiduna eta gordean egiten dena. Horrelakoetan, dagokion zehapen-espedita abiarazteaz gain, sarrerak edo abonuen errekaragudunak kenduko dira berehala, kautelazko neurri gisa.

e) Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezartzen dituen gainerakoak, honako kontu hauek guztiak direla eta: abonuen salmenta; salmenta komisioidun eta errekaragudunaren baimena; sarreraren salmenta telematikoen baldintzak eta arauak berezia behar duten beste batzuk.

2. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueraren antolatzaileek ateratako sarrerak informazio hau izango dute gutxienez:

a) Hurrenkera-zenbakia.

b) Antolatzailearen eta haren helbidearen identifikazioa.

- c) Ikuskizuna edo jarduera.
- d) Tokia, eguna, hasiera-ordua eta amaitzeko gutxi gorabeherako ordua.
- e) Eserleku mota eta zenbakia, eserlekuek zenbakia dutenean.
- f) Prezioa.
- g) Itzultzeko baldintzak.
- h) Erregelamendu bidez ezarritako beste edozein.

17. artikulua.- Ordutegia

1. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak iragarritako baldintzetan hasi eta burutu behar dira, eta karteletan, programetan edo iragarkietan jarritako denboran, salbu eta ustekabeko arrazoiek horiek aldatzea justifikatzen badute eta, betiere, aldaketok jendeari behar besteko aurrerapenarekin jakinarazten bazaizkio.

2. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezarriko du establezimendu publikoen ordutegia, eta, horretarako, besteak beste, faktore hauek hartuko ditu aintzat: establezimenduaren, ikuskizunaren edo jolas-jardueraren ezaugarriak, urteko garaia edo urtaroa, baita haren gehikuntzak edo murrizketak ere.

3. Udalek establezimenduen ordutegi orokorra zabaltzea ezarri ahalko dute, jaiak eta bestelako gertakizunak direla eta, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan eta modutan.

4. Jendaurreko ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ordutegi orokorra zabaltzea baimendu dezake, establezimenduaren, ikuskizunaren edo jolas-jardueraren ezaugarriek ordutegi berezia ezartzea justifikatzen dutenean. Horrelakoetan, ordutegi berezia jarri ahal izateko, auzokoak ez gogaitzeko neurri zuzentzaile gehigarriak betetzeko baldintza ezarri ahal izango da.

Baimen horiek dute etorkizunerako eskubiderik sortzen edo aitortzen, eta, baimena izateko, nahitaez bete beharko dira ezarritako eskakizunak.

5. Establezimendu publikoa, ikuskizuna edo jolas-jarduera baimentzeko eskumena duten administrazioek, edo aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena jasotzeko eskumena dutenek, ordutegi orokorrari muga bereziak ezarri ahal dizkiote, ordutegi berezia ezartzea justifikatzen denean establezimenduaren, ikuskizunaren edo jardueraren ezaugarriak direla eta edo ospitaletatik edo haurrentzako zein zaharrentzako egoitzetatik dagoen distantzia dela eta.

6. Manu honetan ordutegiei buruz xedatutakoa ez da eragozpen izango ingurumenaren kutsadurari eta kutsadura akustikoari buruzko lege-xedapenek ezarritako mugak ere betetzeko.

18. artikulua.- Adingabeak babestea

1. Haurrak eta nerabeak babesteko, manu honetan mugak ezartzen dira adingabeak jendaurreko ikuskizunetan, jolas-jardueretan eta establezimendu publikoetan sartzeko eta egoteko.

2. Adingabeak ezin izango dira establezimenduetan sartu edo egon baldin eta, bertan, adingabeentzat desegokitzat jotako jarduerak edo erakusketak egiten badira, edo, edozein bitartekoz, adingabeentzat egoki ez den materiala edo informazioa jaso badaiteke. Berariaz debekatuta dago:

a) Hamazortzi urtetik beherakoak lege honetako katalogoan zehaztutako erakusketa-areto berezietan sartzea eta egotea baldin eta proiektzioak, erakusketak edo zuzeneko emanaldiak pornografikoak badira, muturreko biolentzia erakusten badute edo, edukiari erreparatuta, bakarrik adin nagusikoentzat badaude baimenduta.

b) Hamazortzi urtetik beherakoak joko-establezimenduetan eta lokaletan sartzea, haien arautegi espezifikoa araberara.

c) Hamasei urtetik beherakoak dantzalekuetan, dantza-saletan, diskoteketan eta pubetan sartzea eta egotea, adingabekoentzako saioak egiteko baimena duten dantza-salei edo diskotekei edota gazte-aretoei buruz xedatutakoaren kalterik gabe.

3. Adingabeen nortasunaren garapenerako eta prestakuntzarako arriskutsuak izan daitezkeen jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek sarbidea adinen araberara sailkatu eta mailakatuko dute, erregelamenduz ezarritakoaren araberara, eta adinaren araberako sailkapenaren berri emango dute kanpoan ondo ikusteko moduan jarritako karteletan, publizitatean eta sarrera-txarteletan.

4. Bezeroentzako Interneteko sarbidea duten establezimenduek eta instalazioek edukien murrizketak eta kautelak ezarri beharko dituzte adingabeek beren nortasunaren garapena edo prestakuntza kaltetu dezakeen informaziorik jaso dezaten saihesteko. Edonola ere, debekatuta dago hamazortzi urtetik beherakoak ziberkafetegietan sartzea, baldin eta Interneteko informatika-sareetako konexioek inolako mugarik ez badute erabiltzaileen adinari dagokionez.

5. Dantza-saletan edo diskoteketan adingabekoentzako saioak egin daitezke, zeinetan hamalau eta hamazortzi urte bitartekoei utziko baitzaie sartzeko, betiere, gutxienez, baldintza hauek betetzen badira:

a) Adingabeentzako establezimenduen publizitateak ezin ditu adingabeentzat egokiak ez diren erreferentziak edo mezuak eman edo izan, ez zuzenean, ez zeharka.

b) Debekatuta dago edozein eratako edari alkoholduak edo tabakoa ematea edo saltzea, bitartekoa dena dela.

c) Establezimendu publiko horiek irekita daudenean, ezin izango da inolako zorizko jolas- makinariak ustiatu.

d) Saioa ezin da amaitu erregelamendu bidez ezartzen den amaiera-ordua baino beranduago. Dena den, ordubete igarota, lokala berriz ireki ahal izango da, hamazortzi urtetik beherakoei sarrera ukatzekotan.

e) Ezin izango da adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen duten ikuskizunak egin, apaingarriak jarri edo propaganda eman.

6. Establezimendu publikoen edo instalazioen titularrek eta jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek nortasun agiri nazionala edo antzeko dokumentu bat eska dezakete, zuzenean edo beren zerbitzura dauden langileen bitartez, bertaratzen den publikoaren adina egiaztatzeko. Adina dokumentu baten bidez egiaztatzen ez dutenei edo, lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, adinaren eskakizuna betetzen ez dutenei, sarrera eragotziko diete eta, barruan badaude, kanporatuko egingo dituzte, zuzenean edo beren zerbitzura dauden langileen bitartez.

7. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiten dituzten establezimenduetan edo instalazioetan sartzan diren adingabeei ezin zaie saldu edo eman inolako edari alkoholduak edo tabakoaren produkturik, eta gai horien inguruan indarrean dagoen legeria beteko da.

19. artikulua.- Zaintzaren eta sartzeko kontrolaren inguruko betebeharrak

Euskadiko segurtasun publikoko sistema arautzen duen ekainaren 28ko 15/2012 legean eta lege honetan xedatutakoa garatzeko, erregelamendu bidez zehaztuko da -izaera, edukiera edo herritarren bizikidetzan duten eragina kontuan hartuta- zein ikuskizun, jarduera eta establezimendu publikotan ezarri behar diren honako hauek:

a) Segurtasun-neurri bereziak.

b) Segurtasun pribatuko zerbitzuak, segurtasun pribatuari buruzko legerian ezarritako baldintzak eta eskakizunak beteta.

c) Berariazko sarrera-zerbitzuak, langileak behar bezala identifikatuta eta akreditatuta, bezeroen edo erabiltzaileen sarrera kontrolatze aldera.

2.- 700 lagunetik gorako aforoa baimendua duten establezimendu publikoek edo instalazioek, baita udal agintariak zehazten dituzten aforo horretatik

beherakoek ere, pertsonak zenbatzeko nahiz aforoa kontrolatzeko sistemak izan beharko dituzte, Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez zehaztutako baldintzekin eta ezaugarriekin bat etorritz.

20. artikulua.- Onartzeko baldintzak

1. Lege honen ondorioetarako, hauxe da sarrera ukatzeko eskubidea: establezimendu publikoetako titularrek eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek dena delako ekitaldian sartzeko eta egoteko baldintza objektiboak ezartzeko duten ahalmena, indarrean dagoen legerian ezarritako mugak errespetatuta.

2. Baldintza horiek eta sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzeak ezin dute inolaz ere diskriminaziorik sortu arraza, sexua, erlijioa, iritzia, desgaitasunak, sexu-joera, genero identitatea edo erabiltzaileen beste edozein baldintza edo gorabehera pertsonal edo soziala direla eta.

3. Establezimenduen titularrek eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek sarrera ukatu beharko diete portaera bortitza erakusten dutenei edo beren jokabidearekin beste ikusle edo erabiltzaileak gogaitu ditzaketenei edota ikuskizuna edo jarduera ondo joatea eragozten dutenei. Langile espezializatuek kontrolatuko dute sarrera, erregelamenduz ezarritako moduan.

4. Sartzeko baldintzak eta ikuskizuna edo jolas-jarduera ondo joan dadin ezarritako jarraibideak ondo ikusteko eta irakurtzeko moduan jarriko dira establezimendu publikoaren, instalazioaren edo leku irekiaren sarreran; baita sarrerak salduko diren tokietan, eta ikuskizunari edo jolas-jarduerari buruzko publizitatean edo propagandan.

21. artikulua.- Lehen laguntza eta larrialdi-ebakuazioa

Erregelamendu bidez ezarriko da larrialdia egonez gero lehen mailako sorospinak emateko eta ebakuazioa egiteko gaitutako langileak izan behar dituzten establezimendu, jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduera motak, betiere aintzat hartuta establezimenduaren dimentsioa edo edukiera edo ikuskizunak eta jarduerak hartzen dituen espazio.

22. artikulua.- Asegurua

Establezimendu publikoen titularrek eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek erantzukizun zibileko aseguru-kontratu bat egin behar dute bertaratutako publikoari eta hirugarrenei gerta dakizkiekeen kalteak estaltzeko; aseguruaren estaldura eta zenbatekoak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

III. TITULUA ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN ERKIDEAK

23. artikulua.- Arau orokorra

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egingo dituzten establezimenduak irekitzeko eta ikuskizun eta jarduera horiek antolatzeko, titularrak edo antolatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du aldez aurretik, salbu eta lege honek aldez aurreko jakinarazpen hutsa egitea edo aurretiaz administrazio-lizentzia edo baimena lortzea eskatzen badu.

24. artikulua.- Salbuespenak

Indarrean dagoen araudia betetzeko beharra eragotzi gabe, jendearentzat irekitako establezimenduek, jendaurreko ikuskizunek edo jolas-jarduerak ez dute baimenik eskatu beharko, edo erantzukizunpeko adierazpenik edo aldez aurreko jakinarazpenik egin beharko:

- a) Jendearentzat irekitako establezimenduaren titularra udala bada.
- b) Herriko jaien eta dantzaldien kariaz, udalak berak zuzenean antolatu baditu eta ikuskizuna edo jarduera baimentzeko edo erantzukizunpeko adierazpena jasotzeko eskumena udalak berak badu, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- c) Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren gehienezko aforoa 50 pertsonakoa bada, eta establezimenduak, edozein motatakoa izanik ere, noiz edo noiz antolatzen baditu ikuskizunak, udal-ordenantzek edo -erregelamenduek, salbuespenez, besterik ezartzen ez badute, interes orokorreko premiazko arrazoiak direla medio- eta proportzionaltasuna, premia eta esku-hartze txikiena aintzat hartzeko irizpideari jarraiki.

25. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpenen araubide juridikoa

1. Lege honen ondorioetarako, hauxe da erantzukizunpeko adierazpena: titularrak edo antolatzaileak sinatutako dokumentu bat, zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunpean, indarrean dagoen araudian jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera bat antolatzeko edota establezimendu bat irekitzeko ezarritako eskakizunak betetzen dituela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela eta eskakizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoari eutsiko diola haiek indarrean dauden bitartean; adierazpenean, gainera, jardueren hasiera edo establezimenduaren irekiera komunikatu behar da.

2. Erantzukizunpeko adierazpena jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi edo establezimendu publikoa ireki baino hamar egun lehenago aurkeztuko da, beranduenez.

Erregelamendu bidez finkatu ahal izango da erantzukizunpeko adierazpena egitean zein eskakizun formal bete behar diren eta zein dokumentazio aurkeztu behar den.

3. Erantzukizunpeko adierazpenak dagozkion jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egitea edo kasuan kasuko establezimendu publikoa irekitzea ahalbidetzen du.

4. Erantzukizunpeko adierazpenak datu hauek identifikatu behar dituzte:

a) Establezimenduaren titularra den pertsona edo ikuskizuna edo jarduera antolatu duena.

b) Kasuan kasuko ematen dituzten ikuskizun publikoak, jolas-jarduerak edo zerbitzuak.

c) Zenbat denborarako egingo diren.

d) Ikuskizun edo jarduera horiek hartuko dituzten establezimendu publikoak edo espazioak.

e) Horien aforoa.

5. Mugagabea da establezimendu bat irekitzeko erantzukizunpeko adierazpenaren indarraldia, arauen bidez kontrakoa zehazten ez den bitartean.

Hala ere, ekitaldi bakarrean egitekoak diren ikuskizunei edo jolas-jarduerari dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak ikuskizuna edo jarduera amaitzen denean iraungiko dira.

6. Erantzukizunpeko adierazpenean hartutako eskubideak transmiti daitezke, establezimenduaren titularraren edo ikuskizun edo jardueraren antolatzailearen ezaugarri bereziak kontuan hartuta egin badira salbu.

Titulartasuna aldatzen bada, eskualdatzaileak eta hartzaileak, batera, idatzizko jakinarazpena egin behar diote organo eskudunari, hilabeteko epean gauzatu zenetik, gehienez; horrelakorik izan ezean, titularrari sortzen zaizkion erantzukizun guztiak aipaturiko bientzat izango dira.

7. Erantzukizunpeko adierazpena administrazio eskudunean aurkeztu ez bada, funtsezko eskakizunen bat betetzen ez bada, edo gerora sortutako araudi berrietara egokitzen ez badira horretarako ezarritako epeetan, edo funtsezko datuak, adierazpenak edo dokumentazioa zehaztugabeak edo faltsuak badira edo aurkeztu ez badira, gorabehera horiek ezagutzen direnetik aurrera ezin izango da jarraitu dena delako eskubideaz baliatzen edo jarduera egiten, egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboaren kalterik gabe.

Horrelakoetan, eskumeneko administrazioak prozedura irekiko du, arauz zehaztuko dena, interesatuak ikusitako eragozpenak zuzendu ahal ditzan, horretarako ezarritako epean, baita dagozkion ebidentziak edo deskarguak alegatzeko eta ekartzeko ere; horren ondorioz, arrazoitutako ebazpen bidez, establezimendu publikoa ixtea agindu dezake, bai eta ikuskizun publikoa edo jolas-jarduera bertan behera geratzea.

8. Administrazioak ofizioz jo dezake iraungitzat erantzukizunpeko adierazpenaren eragina, interesdunari entzun ondoren, baldin eta, adierazpena aurkeztu eta handik sei hilabetera, jendearentzat irekitako establezimenduak, justifikatutako arrazoirik gabe, jarduerak hasi ez baditu edo, edozein unetan, urtebetetik gorako etena egiten badu jardueran.

26. artikulua.- Aldez aurreko jakinarazpenen araubide juridikoa

1. Lege honen ondorioetarako, hauxe da aldez aurreko jakinarazpena: lege honetan edo erregelamendu bidezko garapenean hala eskatzen denean, interesdunek herri- administrazioei aurkeztu behar dioten dokumentua, zeinean beren identifikazio-datuak eta ikuskizun publiko edo jolas-jarduera bat egiteko eskatzen diren gainerako eskakizunak jakinarazi behar dituzten.

Aldez aurreko jakinarazpena ikuskizun publikoa edo jolas-jarduera hasi baino berrogeita zortzi ordu lehenago aurkeztuko da, beranduenez.

Nolanahi ere, aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu ahal izango da jarduera hasi ondoren, horretarako jarritako epean, Lege hau garatzeko araudiak berariaz jasotzen duenean.

2. Aldez aurreko jakinarazpenak, legez eska daitekeenean, dagozkion ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak egitea ahalbidetzen du, herri-administrazioei dagozkien egiaztatze-, kontrol-, eta ikuskatze-eskumenen kalterik gabe.

3. Aldez aurreko jakinarazpena administrazio eskudunean aurkezten ez bada, gerora sortutako araudi berrietara egokitzen ez badira horretarako ezarritako epeetan, edo funtsezko datuak, adierazpenak edo dokumentazioa zehaztugabeak edo faltsuak badira edo aurkeztu ez badira, gorabehera horiek ezagutzen direnetik aurrera ezin izango da jarraitu dena delako eskubidez baliatzen edo jarduera egiten, egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboen kalterik gabe.

Horrelakoetan, administrazio eskudunak, interesdunari entzun ondoren, ikuskizun publikoa edo jolas-jarduera geldiarazi ahal izango du.

4. Erregelamendu bidez finkatu ahal izango da aldez aurreko jakinarazpena egitean zein eskakizun formal bete behar diren eta zein dokumentazio aurkeztu behar den.

27. artikulua.- Baimenen araubide juridikoa

1. Jendeari irekitako establezimenduak zabaltzeko, ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak gauzatzeko, edota, lege honek aurreikusitako kasuetan, ikuskizun eta jarduera horiek antolatzeko ere, hauek dira administrazioaren baimena edo lizentzia lortzeko beharra eragiten duten interes orokorreko premiazko arrazoiak: ordena publikoa, segurtasun publikoa, babes zibila, osasun publikoa, kontsumitzaileak, zerbitzu-hartzaileak eta langileak babestea, ingurumena eta hiri-ingurunea babestea eta ondare historikoa eta artistikoa gordetzea.

2. Baimenek indarraldi mugagabea dute, kontrolen eragina eta aldi behin egingo diren azterketei kalte egin gabe.

Hala ere, ekitaldi bakarrean egitekoak diren ikuskizunei edo jolas-jarduerari dagozkien baimenak ikuskizuna edo jarduera amaitzen denean iraungiko dira.

3. Baimenaren titularrak bermatu egin behar du baimena emateko nahitaezkoak izan ziren baldintzak betetzen jarraituko duela beti, eta instalazioak, ikuskizunak eta jarduerak moldatuko dituela baimena eman ondoren sortutako arau-xedapenetan ezarritakoari egokitzeko.

4. Indarrean dauden baimenen titularrek edozein aldaketa jakinarazi behar dute, administrazio eskudunak funtsezko aldaketa den balora dezan eta, ondorioz, baimen berria eman behar den erabaki dezan; ildo horretatik, ikuskizun publikoaren, jolas-jardueraren, establezimendu publikoaren edo ematen den zerbitzuaren oinarriko elementuren bat aldatzea joko da funtsezko aldaketatzat.

5. Emandako baimenak transmiti daitezke, establezimenduaren titularraren edo ikuskizun edo jardueraren antolatzaielaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta eman badira salbu. Salbuespenez eta behar bezala arrazoitua, eskualdaketa aldi baterako eten daiteke, edo eskualdaketa berriak egitea debekatu, erregelamenduz ezarritako kasuetan.

6. Titulartasuna aldatzen bada, ez da baimen berririk eskatu behar, baina eskualdatzaileak eta hartzaileak, batera, idatzizko jakinarazpena egin behar diote organo eskudunari, gauzatu zenetik hilabeteko epean, gehienez; horrelakorik izan ezean titularrari sortzen zaizkion erantzukizun guztiak aipaturiko bientzat izango dira.

7. Baimena baliogabetu egingo da, horretarako prozedura abiatu eta interesdunari entzun ondoren, baldin eta:

a) Baimena emateko ezarri ziren eskakizunak eta baldintzak betetzen ez badira.

b) Baimena emateko kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatu edo desagertu badira edo baimena ukatzea ekarriko luketen inguruabar berri batzuk agertu badira.

c) Instalazioak, ikuskizunak edo jarduerak gerora sortutako araudi berrietara egokitzen ez badira horretarako ezarritako epeetan.

d) Baimena baliogabetzea dakarren zehapen bat ezarri bada.

Prozedura amaitutzat joko da interesdunak konpontzen badu prozedura irekitzeko arrazoi izan zen irregulartasuna. Hala ere, amaitutzat ez jotzea gerta daiteke, interesdunak ez- betetzea errepikatzen badu behin baino gehiagotan.

8. Administrazioak baimenak iraungitzea xeda dezake, baldin eta, adierazpena aurkeztu eta handik sei hilabetera, jendearentzat irekitako establezimenduak, justifikatutako arrazoirik gabe, jarduerak hasi ez baditu edo, baimena indarrean dagoela, edozein unetan urtebetetik gorako etena egiten badu jardueran.

9. Baliogabetzea eta iraungitzearen adierazpena ofizioz izapidetuko dira, interesdunei entzunda, eta hala erabakitzen bada, erabaki hori sei hilabeteko epean gauzatuko da, espedientea ireki izana jakinarazi zenetik. Baliogabetzeak edo iraungitzea adierazteak ez dute sortzen kalteordainik jasotzeko eskubiderik.

10. Establezimendu publikoa irekitzeko lizentzia-eskariari dagokion ebazpena ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan ezarritakoaren arabera. Epe hori eskaera aurkeztu eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Zehaztutako epea amaitu eta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunak onartutzat har dezake bere lizentzia-eskaera.

11. Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak baimentzeko egindako eskaerak, gutxienez, ikuskizuna edo jarduera gauzatzeko aurreikusitako eguna baino hamar egun lehenago aurkeztu behar dira, araudi espezifikoek bestelako eperik jarri ezean.

Egin aurretiko hirurogeita hamabi ordu lehenago ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunak onartutzat har dezake eskatutako baimena.

28. artikulua.- Baimenak bat etortzea

Lege honetan araututako baimenak lortu arren, ikuskizun publikoek, jolas-jarduerak eta establezimendu publikoek indarrean dagoen legeriak beren ezaugarrien arabera eskatzen dizkien bestelako baimenak ere eskatu beharko dituzte.

II KAPITULUA. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK IREKITZEA

1. ATALA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BEHAR DUTEN ESTABLEZIMENDUAK

29. artikulua. - Erantzukizunpeko adierazpena

1. Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteko, establezimendu publikoak irekitzeak eskatzen du titularrak erantzukizunpeko adierazpena egitea, establezimenduaren udaleko lizentzia lortzea eskatzen duten kasuetan izan ezik.

2. Establezimendu publiko bat irekitzeko, erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztuko da, gutxienez:

a) Obraren eta jardueraren proiektuaren kopia, teknikari eskudunak sinatua eta, hala badagokio, profesionalen elkargoaren oniritzia, elkargoen nahitaezko oniritziei buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

b) Obra-bukaerako ziurtagiria, teknikari edo organo eskudunak emana eta, hala badagokio, profesionalen elkargoaren oniritzia.

c) Aseguru-kontratua sinatu izana egiaztatzen duen agiria, lege honetan ezarritako moduan.

d) Agiri egokiak auto-babeserako araudiaren arabera.

2. ATALA.- LIZENTZIA-ARAU BIDEARI LOTUTAKO ESTABLEZIMENDUAK

30.- artikulua.- Establezimenduaren udal-lizentzia

Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteko, jendeari irekitako establezimenduaren udal lizentzia lortu behar da, horietan batuz gero inguruabar hauetakoren bat:

a) Esparruren bat izatea arrisku berezi handitzat harturikoa, indarrean diren arau teknikoaren arabera.

b) Sailkatutako jarduera-lizentzia behar da, ingurumen-kontrolerako legearen arabera.

c) Dena delako eraikinak balio kulturala baldin badu, eta, arkitektura aldetik den bezalakoa izanik, ezinezkoa bada baldintza tekniko orokorrak osorik betetzea.

d) Lege honen arabera, araubide bereziko establezimendu publikoa da.

31. artikulua.- Establezimenduaren lizentzia tramitatzea

1. Establezimendu publikoak irekitzeko behar diren lizentziak eta baimen denak aldi berean eskatu behar dira eta, ahal dela, batera tramitatu behar dira, erregelamenduetan jartzen duen moduan.

2. Tramiteak batera edo aldi berean egiteko prozeduretan, hauek hartuko dira kontuan:

a) Ahal dela, tramite eta jarduera guztiak sinpletu eta osatu behar dira. Hori dela-eta, prozedura horien baitan, lizentzia- eta baimen-tramitazio guztietarako, gehien irauten duenak dituen epeak aplika daitezke; eta beste aukera bat ere bada: lizentzia edo baimen horietako baten tramitazioa etenda geratzen bada, gainerako tramitazioa ere etenda uztea.

b) Edonola ere, administrazio eta organo bakoitzak, bere eskumenpeko ebazpenetan, erabakiak berak hartzeko ahalmena eduki behar du.

c) Jendeari irekitako establezimenduaren udal-lizentzia emateko prozeduran administrazioaren esku-hartzea sartzeari, sailkatutako jarduera-lizentziari dagokion kontrol prebentiboa egiteko; horrela, ingurumenean eskumena duen erakundeak ordezkaturiko du lizentzia hori ingurumen alorreko txosten integratuaren ordezkari eta, hala egokituz gero, ingurumen inpaktuari buruzko adierazpenaren ordezkari. Kontrako txostena edo adierazpena bada edo igorpen, preskripzio tekniko eta aldian aldiko kontrolei dagokienez mugapenak zehazten badituzte, lizentzia emateko lotesleak izango dira.

3. Udalek jakinarazi behar dizkiote Eusko Jaurlaritzari, hain justu ere, ikuskizunen eskumena duen zuzendaritzari, obra egiteko proiektu teknikoak; besteak beste, lokalak udalaren titulartasuna baldin badu eta horren edukiera 700 lagun baino gehiagorentzat bada, ez du lizentziarik behar, baita aipatu kantitatea baino gehiagoko aforoa duten gainerako establezimenduenak ere; edo zezen-plazak, eta erregelamenduz zehazturiko gainerakoak. Proiektuaren berri emango da hamabost eguneko epean, lizentzia eskatzeko espedientea hasten denetik edo, lokala udalarena baldin bada, exekuzio-proiektua egiten denetik kontatzen hasita.

Proiektua ikusita, ikuskizunen eskumena duen zuzendaritza horrek bi hilabeteko epea izango du ebazpena emateko. Beharrezkoa baldin bada, ebazpen horren bidez jakinaraziko dio, udalari, zer zuzendu behar duen edo beste zein baldintza bete behar duen, aplikatu beharreko arau teknikoaren arabera. Zuzentze-neurri eta baldintza berri horiek lizentziara edo proiektu teknikora bilduta geratuko dira, derrigor. Epe horretan ez baldin bada berriazko ebazpenik iristen, ulertuko da txostena aldekoa dela, eta espedientea tramitatu daitekeela, ezer zuzendu gabe.

32.- artikulua.- Lizentzia duen establezimendua abian jartzea

1. Obrak eta instalazioak bukatu eta gero, ikuskizunak eta jolas-jardueretarako establezimendu publikoak ezin dira inola ere abian jarri, titularrak udalari aurkeztu ez badio aldez aurreko jakinarazpena; horrekin batera, eskumeneko teknikariak emandako ziurtagiria ere aurkeztuko du eta horrek egiaztatuko du establezimendua eta haren instalazioak egokitzen direla eraikuntza-proiektuari eta aurkeztutako agiri teknikoei eta neurri zuzentzaile guztiak betetzen dituela, hala ezarri badira.

2. Jakinarazpena egin eta gero, establezimendu publikoa martxan jartzea jardueraren titularren eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean egingo da, erabat; halere, jarduerak martxan jarriko badira, beharrezkoa izango da sektorean aplikatzekoa den araudiaren arabera baimena edukitzeko beharrezko diren titulu administratiboak aurretik eskuratzea edo egin beharreko kontrolak aurretik eginga edukitzea.

3.- Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan abian jar daiteke establezimendu publikoa, baldin eta aldez aurreko jakinarazpenarekin batera doan ziurtagiri teknikoak egiaztatzen badu horrek ez dakarrela arriskurik pertsonen eta ondasunen segurtasunerako, establezimenduaren lizentzian eskatutako betekizunen bat betetzen dela egiaztatzen ez badu ere. Horrelakorik gertatuz gero, establezimenduaren titularrak egiaztatu beharko du lizentzian eskatutako gainerako betekizunak betetzen direla. Epe hori igarotakoan, eskakizun horiek bete direla egiaztatzen ez bada lizentzia indarrrik gabe geratuko da.

33. artikulua.- Jendeari irekitako eta araubide bereziko establezimenduak

1. Jendeari irekita eta araubide berezia duten establezimenduek errazago eragin dezakete herritarren arteko bizikidetza edo segurtasuna edo osasuna, ordutegi berezia dutela-eta, edo beste berezitasun batzuk direla-eta (erregelamenduetan aurreikusita egon behar dute).

2. Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu, erregelamendu bidez, establezimendu horiek eduki beharreko ezaugarriak eta bete beharreko baldintza bereziak ezarriko ditu, besteak beste, kokapena, gutxieneko distantziak, mugikortasun-zerbitzuak edo segurtasuna edo osasuna zaintzeko neurri bereziak; jendea bizi den lekuetan eta jendeak egiten dituen gauzetan eta kultura-arloko jardueretan ahalik eta eraginik txikiena izateko helburua izanik.

3. Establezimenduaren udal lizentzia emateak horrelakoetan eskatzen du ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren aldez aurreko txosten loteslea.

Horren ondorioz, udalak helarazi beharko dio ikuskizunen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari establezimendu horiei dagokien lizentzia eskatzeko espedientearen kopia. Espedientea helaraziko da hamabost eguneko epean, lizentzia eskatzeko espedienteari hasiera eman zitzaienetik.

Espedientearen edukia ikusita, ikuskizunen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak bi hilabeteko epea izango du ebazpena emateko. Beharrezkoa baldin bada, ebazpen horren bidez jakinaraziko dio, udalari, zer zuzendu behar duen edo beste zein baldintza bete behar duen, aplikatu beharreko arau teknikoen arabera. Aipatu neurri eta baldintza horiek lizentziara bilduta geratuko dira, ezinbestean. Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpenik iristen, ulertuko da ebazpena aldekoa dela, eta lizentzia eman daitekeela, ezer zuzendu gabe eta baldintzarik gabe.

34. artikulua.- Jarduerak bateragarriak izatea

1. Establezimendu publiko bat irekitzeko udal-lizentziak edo erantzukizunpeko adierazpenek gaitasuna ematen diete bereziki aipatu ikuskizun eta jolas-jarduerari.

2. Lege honetan, bada ikuskizunen, jolas-jardueren eta establezimenduen sailkapen bat. Establezimendua sailkapen horretan berezita ageri diren jarduera bateragarri bat baino gehiago egiteko bada, lizentzian edo erantzukizunpeko adierazpenean hala jasota utzi beharko da. Era berean, lokalak edo esparruak eremu bat baino gehiago baldin badauka eta bakoitza erabilera baterako bada, leku horietako bakoitzaren edukiera zehaztu beharko da.

Jarduera bateragarriak dira, lege honen ondorioetarako, ordutegi, dotazio edo sar daitekeen ikusle-kopuru aldetik baliokideak direnak.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakoa kontuan hartuz, orobat dira jarduera bateragarriak aipatu establezimenduari dagokion lizentzian edo erantzukizunpeko adierazpenean ez badaude ere, aldian behingoak edo noizbehinkakoak badira eta haien garapenak ez badakar lokalaren konfigurazioa aldatzea edo instalazioak aldatu behar izatea, edota auto-babeseko plana, horrelakorik izanez gero.

Nolanahi ere, jarduera horiek burutzeak eskatzen du alde zuzeneko jakinarazpena eskumeneko administrazioari aurkeztea.

III. KAPITULUA. IKUSKIZUN PUBLIKOAK ETA JOLAS JARDUERAK ANTOLATZEA

1. ATALA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BETE BEHARREKO IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK

35. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpena

Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteak eskatzen du antolatzaileak alde zuzenetik aurkeztea erantzukizunpeko adierazpena, administrazioaren baimena lortzea eskatzen den suposamenduetan izan ezik, Lege honek zehaztutakoaren arabera.

36. artikulua.- Aldizkako ikuskizunak eta jarduerak

1. Edonola, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteak eskatzen du erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea administrazio eskumendunaren aurrean. Kasu hauetan, hain zuzen:

a) Beharrezko lizentziarik edo erantzukizunpeko adierazpenik ez duen lokal batean, aldizka, edo inoiz, ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak egitea, salbu Lege honen 34. artikuluan 3. paragrafoan ezarritakoa.

b) Establezimenduak badu beharrezko lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpena, baina, dena delako ikuskizuna edo jolas-jarduera egiteko, baldintza tekniko orokorrak aldatu beharra dago, edo segurtasuna aldatu beharra dago, edo jende gehiagori sartzen utzi, edo eskenatokiak, estalpe edo egitura desmontagarriak jarri beharra dago.

2. Arau honen lehen paragrafoan aurreikusitako ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak egiteak eskakizun hauek bete behar ditu:

a) Derrigor jakin beharra dago noren edo zein erakunderen erantzukizunpean egin den deialdia, antolatu diren eta burutuko diren. Garbi-garbi zehaztu beharko da zein erantzukizun duten.

b) Arauetan hala jartzen badu, zaintzaileak eta sarbide-kontrolerako langileak eduki beharko dituzte.

c) Arauetan hala jartzen badu, auto-babeseko plan bat ere eduki beharko dute.

d) Arauz ezarritako higiene- eta segurtasun-zerbitzuak eta osasun-zerbitzuak eduki beharko dituzte.

e) Hala dagokionean, pertsonak zenbatzeko eta aforoa kontrolatzeko zerbitzuak.

f) Ikuskizun publikoaren edo jolas-jardueraren eragin akustikoaren balorazio bat aurkeztu beharko dute eta, beharrezkoa bada, hori prebenitzeko eta gutxitzeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte.

g) Legeetan eskatzen diren aseguru-poliza kontratatu beharko da.

h) Lege honetan bertan eta lege hau garatzeko arauetan halakoetarako eskatzen diren gainerako eskakizun eta baldintzak.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskakizunaz gain, artikulua honetan kontuan hartutako ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek erregelamenduz ezarriko den fidantza jarri beharko dute; horren bitartez, lege honetan eta hura garatzeko araudian ezarritako eginbeharrak betetzen direla bermatu nahi da; zehazki, fidantza horrekin, zehapen araubidearen eta ikuskizuna edo jolas-jarduera baimentzeak dakartzan zergak ordaindu behar diren ondorioz sortutako erantzukizunei egingo zaie aurre.

Administrazio publikoak salbuetsita daude artikulua honek aipatu fidantza aurkeztetik.

Fidantza hori jarri beharko da alde aurreko jakinarazpen egokia aurkeztu aurretik, salbu eta lehendik jarrita eta indarrean badago.

Fidantza eskumena duen administrazioan jarri beharko da, erantzukizunpeko adierazpena jaso ahal izateko eta dirutan edo abal edo kauzio-poliza bitartez osatu ahal izango da.

Fidantza jarri ez bada, epe kanpo jarri bada, zenbatekoa gutxitu ondoren osatu ez bada edo eragina galdu badu, ikuskizuna edo jolas-jarduera ez egiteko arrazoia izango da.

Fidantza bakarrik desegingo da, eta interesdunei itzuliko, hala eskatzen badute eta administrazioak baimena eman ondoren, baldin eta baimendu zen jarduerak amaituta badago; egiaztatu bada ez dagoela diru-betebeharrik ordaintzeke fidantzak estaltzen dituen kontzeptuei dagokienez, eta ziurtatu bada ez dagoela salaketa oinarridun, aurretiazko jarduketarik irekita, zehapen-prozedurarik izapidetze-fasean edo gauzatu gabeko zehapenik.

2. ATALA.- BAIMEN-ARAUBIDEA BETE BEHARREKO IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK

37. artikulua- Baimena behar duten ikuskizunak eta jarduerak

Hauetarako guztietarako alde aurretiko administrazio-baimena behar da:

a) Establezimendu publikoari lotuta, terrazak edo -kanpoan, bide publikoan-beste edozein instalazio jartzeko.

b) Kalean, edo erabilera publikoko leku irekiak hartuz instalazio edo egiturarik jarri behar bada, jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko; berdin dio instalazio-egitura horiek finkoak diren edo denbora baterako diren, eramangarriak edo desmuntagarriak, eta parte hartzaileentzat edo ikusleentzat diren.

c) Barraka eta azoketako atrakzioetarako.

d) Zezen-ikuskizun eta zezenketetarako, non eta ez den derrigorrezkoa, erregelamenduz, erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena egitea.

e) Pirotekniako festa-gaiak bota edo erre behar diren ikuskizunetarako, non eta ez den derrigorrezkoa, erregelamenduz, erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena egitea.

f) Herriz kanpoko bideetan egin behar diren kirol-probetarako.

g) Gainerako jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera guztietarako, zeinetan, interes orokorreko premiazko arrazoiak direla medio, lege espezifiko batek baimena izatea eskatzen baitu.

38. artikulua.- Terrazak

Establezimendu publikoek, kanpoan edo bide publikoan, establezimenduari loturik, terrazarik edo bestelako instalaziorik jarri nahi baldin badute, horretarako udal-lizentzia edo -baimena eskuratu beharko dute, gaiaren inguruko udal-arauetan jartzen duen bezala. Baliteke lizentzia edo baimen horrek instalazioaren erabilera-orduak mugatzea eta, beharrezkoa bada, auzolagunak gogaitzeko moduko edozein aktibitate mugatzea.

39. artikulua.- Ikuskizunak eta jarduerak leku irekietan eta bide publikoetan

1. Leku ireki edo bide publikoetan egitekoak diren jendaurreko ikuskizunetan edo jolas jardueretan, instalazio edo egituraren bat jarri beharra dagoela-eta baimena eskuratu beharra baldin badago, baldintza jakin batzuk bete behar dira, baita udalek berek antolatuta edo udalen zuzeneko erantzukizunpean antolatuta badaude ere, eta berdin dio instalazio- egitura horiek finkoak edo denbora baterako diren, eramangarriak edo desmuntagarriak, eta parte hartzaileentzat edo ikusleentzat diren.

Hauek dira baldintza horiek:

a) Derrigor jakin beharra dago noren edo zein erakunderen erantzukizunpean egin den deialdia, antolatu diren eta burutuko diren. Garbi-garbi zehaztu beharko da zein erantzukizun duten.

b) Azaldu beharko dute, analisi bat aurkeztuz, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera dela-eta zenbat jende mugitzea espero duten, eta zer egiteko asmoa duten, ohikotik aparte, premia horiei erantzuteko.

c) Arauetan hala jartzen badu, zaintzaileak eta sarbide-kontrolako langileak eduki beharko dituzte.

d) Arauetan hala jartzen badu, autobabes-plan bat ere eduki beharko dute.

e) Erregelamendu bidez ezartzen diren higie-ne eta segurtasun-zerbitzuak nahiz osasun zerbitzuak izan beharko dituzte.

f) Beharrezkoa bada, zenbat jende dagoen automatikoki kontrolatzeko zerbitzuak.

g) Adierazi beharko dute, balorazio bat aurkeztuz, jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak zenbateko zarata egingo duen, eta, beharrezkoa bada, zaratarik ez egiteko edo ahalik eta gutxiena egiteko beharrezko neurriak hartu.

h) Legeetan eskatzen diren aseguru-polizak kontratatu beharko dira.

i) Lege honetan bertan eta lege hau garatzeko arauetan halakoetarako eskatzen diren gainerako baldintzak.

2. Aurreko atalean aipatutako prozeduran, baimena ematekoan, bide publikoa erabili behar bada, tartean diren administrazio titularren txostena ere eskatu beharko da, ikuskizuna edo jarduera egin aurretik.

3. Dena delako ikuskizuna edo jarduera kanpoan egitekoa bada, baina inolako instalaziorik gabe, ez finkorik ez desmontagarri-rik, halakoetan, udal-araudian bestelakorik jartzen ez badu, nahikoa da alde- z aurreko jakinarazpena.

4. Herriz kanpoko bideetan egin behar diren kirol-probak: dena delako proba egitekoa den lekuen titularren adostasunaz gainera, aurretiaz, Eusko Jaurlaritzaren baimena lortu behar da, hain zuzen ere, trafikoko eta bide-segurtasuneko eskumenak dituen zuzendaritzarena, eta, gainera, bide-segurtasuneko arauak bete beharko dira, lege honetan bertan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturik dagoenaz gainera.

40. artikulua.- Barrakak eta azoketako atrakzioak

1. Barrakak eta azoketako atrakzioek indarrean dauden arauetan ezartzen diren segurtasun-, higie-ne eta osasun-baldintzak bete beharko dituzte.

2. Barrakak eta azoketako atrakzioak hartuko dituen udal-erriak berak eman behar du instalazio horiek jartzeko baimena, eta baimen hori eman aurretik, lege honen 22. artikuluan aipatzen den erantzukizun zibileko aseguruaz gain, gutxienez, honako agiri hauek eskatu beharko ditu:

a) Fabrikatzailearen dokumentazio teknikoa, dagozkion segurtasun-baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duena. Gutxienez, atrakzioaren deskribapena eta atrakzioa muntatzeko, mantentzeko, kontserbatzeko eta erabiltzeko jarraibideak jaso beharko ditu.

b) Atrakzioaren urteroko ikuskapenaren ziurtagiria, teknikari tituludun eskudunak edo ikuskaritzako erakunde egiaztatuak e- gina.

c) Segurtasunari eta sendotasunari buruzko ziurtagiria, muntaketa bakoitzean teknikari tituludun eskudunak edo ikuskaritzako erakunde egiaztatuak egina.

41. artikulua.- Zezen-ikuskizunak eta zezenketak

1. Zezen-ikuskizunik edo zezenketarik egin baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren baimena beharko da (ikuskitzen arloko eskumenak dituen zuzendaritzaren baimena), eta haren arabera ikusiko da egin edo ez, non eta erregelamenduetan ez duen jartzen aurretiaz erantzukizunpeko adierazpena edo alde aurreko jakinarazpena aurkeztu beharra dagoela.

2. Hainbat gauza erregelamenduz arauturik egongo da: zezen-plazen eta zezen-ikuskizunak egin daitezkeen leku eta instalazioen ezaugarriak, ikuskizun eta zezenketa horiek nola antolatu behar diren, eta nola egin behar diren. Helburua izango da ikuskizunak duintasunez egiten direla bermatzea, zezenekin aritzen diren profesionalen, zaleen eta, oro har, ikusleen eskubideak zaintzea, eta administrazio-antolamenduaren berezitasunei erantzuna ematea.

42. artikulua.- Ikuskizun piroteknikoak

1. Ikuskizun piroteknikorik egin baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren baimena beharko da, eta haren arabera ikusiko da egin edo ez (ikuskitzen arloko eskumenak dituen zuzendaritzaren baimena), non eta erregelamenduetan ez duen jartzen, zein motatako lehergaia eta zenbat erabili behar den ikusita, aurretiaz erantzukizunpeko adierazpena edo alde aurreko jakinarazpena aurkeztu beharra dagoela.

2. Ikuskizun piroteknikoetan bete beharreko segurtasun-baldintzak izango dira estatuan lehergaiei buruz indarrean dauden arauetan eta lege hau garatzearren erregelamenduz zehazten diren arauetan jasota daudenak.

3. ATALA.- ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENA BETE BEHARREKO IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK

43. artikulua.- Aldez aurreko jakinarazpena behar duten ikuskizunak eta jarduerak

Kasu batzuetan, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak, aurretiaz, administrazio eskumendunari jakinarazi behar zaizkio. Kasu hauetan, hain zuzen:

a) Kanpoan, inolako instalazio finko edo desmuntagarririk gabe, ikuskizunak edo jolas- jarduerak egin nahi direnean -aurreko artikuluko ikuskizun eta jardueretan sartzen ez direnak- non eta udal-arauetan ez duen jartzen baimena edo erantzukizunpeko adierazpena beharko dela.

b) Zezen-ikuskizun eta zezenketetarako, erregelamenduetan jartzen baldin badu aurretiaz jakinarazi egin behar direla.

c) Pirotekniako festa-gaiak botaz edo errez egiten diren ikuskizunetarako, erregelamenduetan jartzen baldin badu aurretiaz jakinarazi egin behar direla.

IV. KAPITULUA.ESKUMEN-ARAUBIDEA

44. artikulua.- Eskumenak

1. Establezimendua dagoen udalerriko edo ikuskizuna edo jolas-jarduera osorik egitekoa den udalerriko agintariek dute eskumena erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko adierazpena jasotzeko, edo dagokion baimena edo lizentzia emateko, artikuluko honetako 2. eta 3. paragrafoetan jasota dauden kasuetan izan ezik.

Gerta daiteke, ordea, dena delako ikuskizun edo jolas-jarduera horrek, lurraldez, udalerrri bat baino gehiago hartzea aldi berean. Halakoetan, udalerrri horietan guztietan aurkeztu beharko da erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena, edo eskatu beharko da baimena.

Teknikoki ezinezkoa baldin bazaie, edo ez baldin badaukate beharrezko zerbitzu egokiak jartzeko modurik, udalerrriek eginkizun horiek, osorik edo zati batean, Eusko Jaurlaritzaren esku utz ditzakete; hain justu, ikuskizunen eskumena duen zuzendaritzaren esku.

2. Eusko Jaurlaritzan ikuskizun-arloko eskumena duen zuzendaritzari dagokio 37. artikuluko b) hizkian jasotako kasuan behar den baimena ematea baldin eta establezimendua edo esparrua 700 lagun baino gehiagorentzat bada, baita 37. artikuluko d), e) eta g) hizkietan jasotako kasuetan ere. Hari dagokio ere zezen-ikuskizunetarako edo pirotekniak-ikuskizunetarako erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko adierazpena jasotzea, horrelakoak beharrezkoak direnean.

Era berean, 36. artikuluan jasotako kasuetan ere zuzendaritza hori izango da eskumenduna erantzukizunpeko adierazpena jasotzeko, baldin eta establezimendua edo esparrua 700 lagun baino gehiagorentzat bada.

Ikuskizunen eskumena duen zuzendaritzak bere egitekoak, edo bere egitekoetako batzuk, udalerrien esku utz ditzake.

3. 37. artikuluko f) idatz-zatiko baimenak emateko ardura, berriz, Eusko Jaurlaritzan trafikoko eta bide-segurtasuneko gaien eskumena duen zuzendaritzak izango du.

IV. TITULUA ZAINZA, KONTROLA ETA IKUSKARITZA

I. KAPITULUA. XEDAPEN ERKIDEAK

45. artikulua.- Bi betebeharrak: mantentzea eta errebisioak egitea

1. Titularrek eta antolatzaileek establezimenduak eta instalazioak, beti, akatsik gabe funtzionatzeko moduan eduki behar dituzte, aplikatu beharreko arauetan eta dagokien baimenean edo erantzukizunpeko adierazpenean jartzen duen bezala.

2. Lege honen aplikazio-eremuan dauden establezimendu publikoen titularrek beste obligazio bat ere badute: bete behar duten arlo-araudian jasota datozen funtzionamendu- kontrolak eta ikuskapen teknikoak pasatzea.

46. artikulua.- Konprobazioak eta kontrolak

Gainera, administrazio publikoen eginkizunetako bat izango da zaintzea eta begiratzea, bakoitzak bere eskumenen esparruan, ea jendaurreko ikuskizunei, jolas-jarduerari eta establezimendu publikoei buruzko legeak betetzen diren. Horretarako, ahalmen hauek izango dituzte:

- a) Establezimenduak eta instalazioak ikuskatzea.
- b) Ikuskizunak eta jolas-jarduerak nola egiten diren kontrolatzea.
- c) Debekatzea, etetea, ixtea eta beharrezko irizten diren segurtasun-neurriak hartzea.
- d) Hartu be harreko behin-behineko neurriak hartzea, eta lege honetan tipifikaturiko arau haustea zehatzea.

II. KAPITULUA.- IKUSKARITZA

47.- artikulua.- Ikuskatze- eta kontrolatze-eskumenak

1. Baimenak edo lizentziak eman behar dituen edo erantzukizunpeko adierazpenak eta alde aurreko jakinarazpenak hartu behar dituen administrazioak ikuskatuko ditu lokalak eta instalazioak eta kontrolatuko du nola egiten diren ikuskizunak eta jolas-jarduerak.

2. Baimena edo lizentzia ematen duen udalak ikuskatuko eta kontrolatuko ditu establezimenduak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak; edo -kasu batzuetan ez baita baimena behar-, erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena hartu duen udalak. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak ahalmen hori udalaren esku uzten duenean ere, udalak egingo du.

3. Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen eskumena duen zuzendaritzak ikuskizun eta jarduera hauek ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena du:

a) Dena delako establezimendu, ikuskizun eta jolas-jarduera berak baimendu baldin badu, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena berak hartu baldin badu, berak du ikuskatu eta kontrolatzeko eskumena.

b) Araubide bereziko establezimendu publikoak. Hala ere, udalek ezer ikuskatu behar badute, berdin-berdin ikuskatuko dute.

c) 700 lagun baino gehiagorentzako establezimendu publikoak. Hala ere, udalek ezer ikuskatu behar badute, berdin-berdin ikuskatuko dute.

4. Pertsonen bizikidetza, segurtasuna edo osasuna arriskuan jartzen badira, ikuskizunen gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak ordeztu dezake udalek betebeharreko ikuskaritza-jarduera, baldin eta haiei betebehar hori betetzeko eskatu bazitzaie ere, ez dutela bete egiaztatu ondoren. Eusko Jaurlaritzak egingo du, baina udalak ikuskaritza-lana egiteko nahikoa bitarteko eta langile tekniko baldin badauka, ordaindu, udalak ordainduko du.

48. artikulua.- Ikuskaritza-lana egiteko irizpideak eta nola koordinatu

1. Eusko Jaurlaritzak onartuko du zein helburu eta lehentasun eduki behar diren establezimendu publikoak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak ikuskatzeko orduan. Eusko Jaurlaritzaren eta udalen ikuskaritza-zerbitzuek bete beharko dituzte, lurralde osoan. Edonola ere, helburu eta lehentasun horiek onartu baino lehen, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluaren txostena beharko da.

Era berean, ikuskaritza-planak eta programak udalekin batera egiten eta adosten saiatuko da, ikuskaritza koordinaturik egitearren eta antzeko irizpide eta metodologiak erabiltzearren.

2. Programazio hori osatzeko orduan, hainbat gauza hartu beharko da kontuan: aisialdiaren inguruko arloa nola garatzen eta zein bilakaera duen; gizartean duen eragina; dena delako jardueraren garrantzia, zein motatakoa den edo non egitekoa den; eta ikuskaritza-lanak nor zertatik disuaditu nahi duen.

3. Artikulu honek ezartzen dituen helburu eta lehentasun horiek gogoan hartuta, Eusko Jaurlaritzak eta udalek ikuskaritza-programak ezarri behar dituzte, eta, gero, tartean diren gainerako administrazioei jakinarazi.

49. artikulua. Ikuskaritza nork nola egin

1. Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateko kideek, udaltzainek edo bestelako funtzionarioek egingo dute establezimendu publiko eta instalazioen ikuskaritza, baita ikuskizunen eta jolasjardueren kontrola ere, zeregin horretarako administrazio eskudunaren organo eskudunak izendatuak izan ondoren. Agintaritzaren agentetzat joko dira zeregin horiek betetzean. Orobat, ikuskaritza-gaietan eskuduna den administrazioak beste pertsona edo erakunde batzuk gaitu ditzake ikuskaritza lanak egin ditzaten, kasuan kasuko behar diren espezifikazio teknikoak eginez.

2. Establezimenduaren egitura, ekipamendua edo dokumentazioa baldin bada ikuskatu beharrekoa, bi erataria egin daiteke: aurretiaz programaturik; edo abisatu gabe, dena delako establezimendua edo jarduera martxan dagoelarik edo entseguak egiten ari direlarik edo prestaketak egiten ari direlarik, hartara, establezimendua, ikuskizuna edo jarduera benetan nola dabilen konprobatzeko. Edonola egiten delarik ere, ahalik eta nahasmendurik txikiena sortuko da.

3. Lokalen eta instalazioen titularrek eta ikuskizunen eta jardueren antolatzaileek ikuskatzaile eta kontrolatzaile akreditatuak hartzeko eta ikuskapen-lana egiten laguntzeko prest egon behar dute, hau da, edozein momentutan sartu edo bertaratu ahal izango dira, eragozpenik gabe. Etxeetan sartzeko Konstituzioko mugak gainditu gabe, ikuskatzaileak edozein lekutara, instalaziotara edo egoitzatara sartu ahal dira, publikoak edo pribatuak izan.

4. Beharrezko segurtasun-baldintzek beren horretan dirauten edo ez egiaztatu nahi baldin badute, herri-administrazio eskumendunek lokalen edo instalazioen titularrei edo ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileei horretarako agiriari edonoiz unetan eskatzeko eskubidea izango dute.

5. Ikuskapen bakoitzeko, akta bana egingo da. Interesdunak, ez baldin badago ondorioekin ados, aktan adierazita utzi ahal izango du. Akta hori interesdunari jakinarazi, eta administrazio-organoren eskumendunari helaraziko zaio.

6. Ikuskaritzan ikusten baldin bada zer edo zer oker dagoela, organo eskudunak, lehen- lehenik, baloratu beharko du ea zer-nolako eragina duen pertsonen edo ondasunen segurtasunean edo herritarren eguneroko bizitzan, eta gero, aukera hauek izango ditu:

a) Irregularitasunak zuzentzeko beharrezko aldaketak edo hobekuntzak egiteko eskatzea, horretarako epe bat jartzea, eta, garaiz egiten ez badituzte, zehapen-espeditentia irekitzea.

b) Zuzenean, zehapen-espeditentia irekitzea erabakitzea, eta, beharrezkoa baldin bada, lege honetan aurreikusitako behin-behineko neurriak hartzea.

III. KAPITULUA.- SEGURTASUN-NEURRIAK

50. artikulua.- Polizia zaintza

1. Ikuskizunak eta, batzuetan, baita jolas-jarduerak egiten direnean ere, Euskadiko polizia kidegoen ohiko zainketa-zerbitzuek arreta berezia jarriko dute, bakoitzak bere eskumenen esparruan.
2. Uste baldin bada poliziek dena delako ikuskizunean edo jolas-jardueran segurtasun- dispositibo bereziak taxutu behar dituztela -izan daiteke jende asko espero delako, edo lehenago ere iskanbilarik gertatu izan delako, edo ordena eta lasaitasuna nahasteko arriskua dagoelako-, koordinazio-lanak nola egin ikusteko, polizia-kidegoen arteko koordinaziorako lege-araubidean begiratu beharko da.
3. Kirol-ikuskizunetan indarkeriari, arrazakeriari eta xenofobiari aurrea hartzeko ahaleginean, dena delako ikuskizunerako onarturik dauden arauetan jartzen duena eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturik dagoena bete beharko da.

51. artikulua.- Ikuskizunak eta jolas-jarduerak debekatzea eta etetea

1. Kasu batzuetan, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duten administrazio-agintariak ikuskizun eta jarduera horiek debekatu edo, hasita baldin badaude, eten egin ditzakete, Euskal Autonomia Erkidegoan segurtasun publikoaren eskumenak dituzten agintarien eskumenetatik ezer kendu gabe.

Hona hemen kasu horiek:

- a) Zer diren edo nolakoak diren ikusita, legeak dio debekatu egin behar direla.
- b) Darabiltzaten lokalek, instalazioek edo lekuek ez daukate lizentziarik, baimenik, erantzukizunpeko adierazpena edo ez dituzte beharrezko segurtasun-baldintzak betetzen.
- c) Ez badute nahitaezko baimenik edo erantzukizunpeko adierazpenik edo haietan ezarritako baldintzak aldatzen badituzte, eta, jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak eginez gero, pertsonentzat eta ondareentzat benetako arriskua sortzen bada.
- d) Pertsonentzako eta ondasunetarako benetako arriskua dago.
- e) Istilu larriak ari dira gertatzen edo gertatuko direla uste da eta pertsonentzako eta ondasunetarako arriskua dago.

2. a), d) eta e) kasuetan, agintariek ikuskizunean edo jolas-jardueran dauzkaten ordezkariak ikusten baldin badute egoera oso larria dela, ikuskizuna edo jarduera eteteko agindu dezakete. Erabakia beraiek hartu beharko dute, baina antolatzaileei aurretiaz abisatuta.

52. artikulua.- Ixtea eta zigilatzea

1. Agintari eskumendunek beste aukera bat ere badute: lizentziarik edo erantzukizunpeko adierazpenik gabeko lokalak eta instalazioak ixtea eta zigilatzea. Ebazpen arrazoitua beharko da, eta, aurretiaz, interesdunei entzun egin beharko diete.

2. Baina, batzuetan, gerta daiteke, lokalak eta instalazioak lizentzia izanagatik ere edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izanagatik ere, erabaki horixe bera agintzea. Izango da akatsak dituztelako eta akats horiek arrisku larria dakartelako pertsonentzat, ondasunetarako eta osasun orokorrerako.

Kaltea berehala gertatzeko arriskua baldin badago, neurri horiek interesdunari aurrez entzun gabe ere har daitezke. Agintari eskumendunek edo ikuskari ari diren agenteek edo funtzionarioek har ditzakete. Agente edo funtzionarioek hartu baldin badute erabakia, beharrezkoa da agintari eskudunak berrestea, gehienez ere hogeita lau ordutan. Berresten ez badu, erabakiak ez du indarrik izango.

3. Egoera eragin duten arrazoiek bere horretan dirauten bitartean egongo dira indarrean neurri horiek.

53. artikulua.- Konfiskatzea

Segurtasuna zaintzeko hartutako neurriak eraginkorrak izan daitezen, beste aukera bat ere badago: debekatu edo eten den ikuskizun eta jarduera horretako ondasun batzuk konfiskatzea, behar bezain beste denborarako. Agintari eskudunek egin dezakete, edo, bestela, zuzenean, ikuskatze-lanak egiten dituzten agente edo funtzionario ikuskatzaileek.

54. artikulua.- Agintari eskumendunak

Dena delako baimenak eta lizentziak emateko edo kasuan kasuko erantzukizunpeko adierazpenak jasotzeko eskumena duen administrazioak dauka eskumena kapitulu honetako 51, 52 eta 53. artikuluetan aurreikusita dauden segurtasun-neurriak hartzeko. Baina toki- erakundea inhibititu egiten baldin bada -eskatu egin beharko zaio inhibitzeko- edo egoerari berehala erantzun behar bazaio, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko organo eskudunek ere egin dezake, beti. Edonola ere, berehala erantzun beharra baldin badago, udal-agintari eskudunek ere esku har dezakete.

V. TITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

55. artikulua. Arau-hauste administratiboak

1. Ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publikoetan, arau-hauste administratiboak lege honetan bertan tipifikatuta dauden egite edo ez-egiteak dira. Lege hau garatzeko erregelamenduetan zehatz daitezke, baina ezertan aldatu gabe arau-hauste horiek eragin ditzaketen erantzukizun zibilak, erantzukizun penalak edo bestelako erantzukizunak.

2. Esparru honetako arau-hauste administratiboak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

56. artikulua.- Arau-hauste oso larriak

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Beharrezko lizentzia, baimen edo erantzukizunpeko adierazpenik gabe establezimendu publikoren bat zabaltzea, jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduerak egitea, edo horietan aldaketak egitea, edo baimenean emandako baldintzak ez betetzea, baldin horrek pertsonak edo ondasunak arrisku larrian jartzea ekarriko badu.

2. Baimendutako gehienezko jende kopurua gainditzea, eta, horren ondorioz, pertsona edo ondasunentzako arrisku larriko egoerak sortzea.

3. Indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-neurriak edo lizentzia, baimen eta ikuskaritzetan betetzeko agintzen direnak ez betetzea, eta lokala edo instalazioak behar bezala ez edukitzea, horrek bermatu beharreko segurtasuna larriki murrizten baldin badu.

4. Establezimendu, esparru edo instalazioak dena delako baimen, lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpenen bitartez aginduta daukaten jarduerak ez diren beste jarduera batzuetarako erabiltzea, horrek pertsona edo ondasunak arrisku larrian jartzen baldin baditu.

5. Lizentziak edo baimenak baimendutako jarduera edo erantzukizunpeko adierazpenean edo aldez aurreko adierazpenean adierazitako jarduera ez den beste ikuskizun edo jolas-jardueraren bat egitea, horrek pertsona edo ondasunak arrisku larrian jartzen baldin baditu.

6. Lokala pertsonen husteko ezarritako baldintzak ez betetzea, eta arau orokorretan edo baimenean edo lizentzian ezarritako prebentzio-neurriak ez betetzea, horrek larriki gutxiagotzen badu leku horretarako eskatzen den segurtasuna.
7. Lege honek berariaz debekatzen dituen ikuskizunak eta jolas-jarduerak egitea.
8. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak debekatzeko edo bertan behera uzteko agintzen duten segurtasun-neurriak ez betetzea, eta ixteko eta zigilatzeako neurriak ez betetzea.
9. Administrazio-bidean ixteko edo bertan behera uzteko zehapen irmoen pean dauden establezimendu publikoak, lokalak edo instalazioak berriz irekitzea, zehapenok oraindik indarrean direla.
10. Ikuskizun edo jardueraren bat egitea, horretarako gaitasuna kentzeko zehapena oraindik indarrean dela.
11. Jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publikoei buruzko prozeduretan, benetakoak ez diren dokumentu edo datuak aurkeztea.
12. Arau-hauste larria egitea, urtebeteko epean arau-hauste larri bi edo gehiagotatik administrazio bideko ebazpen irmo bidez zehatuta egonda lehendik ere.

57. artikulua.- Arau-hauste larriak

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Aurreko artikuluko 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakietan zehaztutako arau-haustek egitea, horrek ez baldin baditu pertsonak edo ondasunak arrisku larrian jartzen.
2. Bete beharreko higie- eta osasun-neurriak ez betetzea, horrek pertsonen edo ondasunen segurtasunean eragina izaten badu.
3. Komunetan nahiz bainugeletan garbitasun- eta higie-falta izatea.
4. Establezimendu publikoak ikuskizun edo jardueretarako errentan ematea edo lagatzea, lege honen 3.2. artikuluan zehaztutakoak barne, nahiz eta lekuok ez bete indarrean dagoen legediak agindutako segurtasun-neurriak.
5. Adingabeei sartzen uzteko baimenik ez duten establezimendu publikoetan, jendaurreko ikuskizunetan edo jolas-jardueretan adingabeei sartzen uztea.
6. Establezimendu publikoetatik pertsonak ebakutzeko ezarritako baldintzak ez betetzea, horrek ez badu koloka larrian jartzen pertsona eta ondasunentzako eskatzen den segurtasuna.

7. Jendaurreko ikuskizun baterako edo jolas-jarduerarako hasteko edo bukatzeko ordutegia ez betetzea, edo establezimendu publikoak ixteko edo irekitzeko ordutegiak ez betetzea.
8. Establezimendu publikoetan edo jendaurreko ikuskizunetan nahiz jolas-jardueretan arma eta guzti sartzea, edo arma gisa erabiltzeko moduko beste zer edo zer hartuta.
9. Erreklamazio-orriak edukitzeko obligazioa ez betetzea, edo erabiltzaile nahiz bezeroei eskuratu nahi ez izatea.
10. Legeak agindutako aseguru-kontratuak sinatuta edukitzeko obligazioa ez betetzea.
11. Nahieran, inor baztertuz edo gehiegikeriaz erabiltzea sarrera ukatzeko eskubidea.
12. Dagokion araudiak dena delako establezimendu, esparru edo instalazioetarako agintzen dituen intsonorizazio-baldintzak ez betetzea, eta aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen zarata edo bibrazioen mugak gainditzea.
13. Petardo, jaurtigairik gabeko arma, bengala eta bestelako su artifizialak erabiltzea, lortu beharreko baimenik gabe edo kasu bakoitzean aplikatu beharrekoa den araudian ezarritako betekizunak bete gabe.
14. Zaintza-neurriak edo –zerbitzuak ez betetzea, edo sarrerako kontrol sistemarik ez izatea, lege honetan jasotakoaren arabera derrigorrezkoak baldin badira.
15. Ezinduek jendaurreko ikuskizunetara, jolas-jardueretara eta establezimendu publikoetara sartzeko modua izango dutela bermatzen duten baldintzak ez betetzea.
16. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak justifikaziorik gabe etetea edo aldatzea.
17. Ikusleek ikuskizuna hasi eta buka ikusiko dutela edo jolas-jardueran iragarri bezala parte hartuko dutela bermatzen duten baldintzak ez betetzea.
18. Ikuskizuna ez egiten tematzea, programatutako ikuskizuna aldatzea edo, justifikaziorik gabe, ikuskizuna egiteko onartutako arauak ez betetzea.
19. Artistek edo antzezleek, antolatzaileek edo establezimenduetako titularrek, edo haien enplegatuek begirunerik gabe jokatzeko, nahierako tratua ematea, inor baztertzea edo ikusleak nahita xaxatzea, giroa asaldatzeko arriskua baldin badago.

20. Sarrerak erosteko ordaindutako dirua ez itzultzea, erregelamenduak itzuli egingo dela baldin badio, iragarritako ikuskizuna edo jolas-jarduera aldatu edo bertan behera lagaz gero.

21. Ikusle edo erabiltzaileei ez uztea lokaleko edo establezimenduko zerbitzu orokorrak erabiltzen.

22. Ikuskizuna edo jolas-jarduera behar bezala garatzeko oztopo diren asaldurak eragitea, ikusleak arriskuan jar ditzaketen asaldurak, eta halakorik gertatzen uztea.

23. Ikusleak agertokira edo ikuskizunaren lekura joatea ikuskizuna edo jarduera martxan dela, non eta hori ez den ikuskizunaren parte.

24. Ikusleen aukeratzeko gaitasuna nahasteko edo engainatzeko asmoa duen informazioa zabaltzea, edo halako sustapen eta publizitatea egitea.

25. Lege honek agintzen dituen funtzionamendu-kontrolak eta berrikuspen-kontrolak ez egitea.

26. Adingabeen ongizate fisikoa, psikikoa edo morala kolokan jar lezaketen jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egitea, horretara eraman dezakeen dekorazioa jartzea edo horri buruzko publizitatea egitea.

27. Oinarrizko eskubideen kontrako ekintzetara dei egiten duten jantzi, sinbolo edo gauzaren bat daukatenei baimena ematea jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueraren bat ematen ari diren esparru, lokal, establezimendu edo instalazioetara sartzeko, eta, bereziki, indarkeriara, xenofobiara edo bazterkeriara dei egiten duen edozer badaramate.

28. Erositako sarrerak baimenik gabe berriz saltzea, edo ezkutuan, edo komisioa jasoz, eta lege honetan nahiz lege hau garatzeko arauetan sarrerak eta txartelak saltzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.

29. Lanean dabiltzan agintaritzaren agenteei edo funtzionario ikuskatzaileei ez uztea establezimendura edo esparrura sartzen, eta haien lanean laguntzeko prest ez egotea.

30. Establezimenduetako titularrek edo jendaurreko ikuskizunen zein jolas-jardueren antolatzaileek lege honetan aurreikusitako arau-hausteak egiten uztea edo onartzea ikuskizunean edo jardueran parte hartzen dutenei, haien mende daudenei eta beren ikusleei edo jardueren erabiltzaileei.

31. Arau-hauste arina egitea, urtebeteko epean arau-hauste arin bi edo gehiagogatik administrazio bideko ebazpen irmo bidez zehatuta egonda lehendik ere.

32. Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako bat egitea, baldin eta horren izaera, zergatia edo inguruabarra kontuan hartuta oso larritzat kalifikatzen ez bada.

58. artikulua.- Arau-hauste arinak

Hauek dira arau-hauste arinak:

1. Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egitea, horretarako beharrezkoa den alde zurrerako jakinarazpena egin gabe.
2. Titularitatea aldatu izana ez jakinaraztea, nahiz lege honek jakinarazi beharra agintzen duen.
3. Lege honetako 15. artikulua agintzen duen informazio eta publizitatea ez egitea, eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren promozioa eta publizitatea egiteko agindua daukan enpresak ez betetzea kontu horietan daukan obligazioak.
4. Beharrezko baldintzak betetzen ez dituen erreklamazio-orriak edukitzea.
5. Ikusleentzako nahiko informaziorik ez duen publizitatea egitea eta, bereziki, lege honek agintzen duen informazioa ez dakarren publizitatea egitea.
6. Ikusleek, bertaratuek edo erabiltzaileek errespeturik gabe jokatzeko artista edo jotzaile, antolatzaile eta titularrekin, haien enplegatuekin, baita eta gainerako publikoarekin ere, eta alderantziz.
7. Ikusle, bertaratu edo erabiltzaileak agertokira edo jotzaileen edo artisten antzezlekura joatea, ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi aurretik, edo amaitu eta gero.
8. Lege honen 16.5 artikulua agintzen duen informazioa ez daukaten sarrerak ateratzea.
9. Establezimendutik irtetea edo sartzeko zarata ateratzea edo eragozpenak eragitea, inguruko auzokoei atsedena galarazteko moduan.
10. Ikusleek eta erabiltzaileek lege honetako 8. artikulua agintzen dituen betebeharrak ez betetzea; ez betetze hori ez bada artikulua honetan bertan jasotako beste arau-hauste modu bat edo arau-hauste larria edo oso larria.
11. Aire zabalean taldekako jolas-jarduerak egitea, baldin eta haiekin batera badakarte edari alkoholikoa kontsumitzea kalean, taldean, kontsumo hori berariaz debekatuta baldin badauka bertako udalak, edo udaleko arau espezifikoaren bizkarrean egiten bada.
12. Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako bat egitea, baldin eta horren izaera, zergatia edo inguruabarra kontuan hartuta larritzat kalifikatzen ez bada.
13. Lege honetan eta lege honek aipatzen dituen erregelamenduetan ezarritakoa ez betetzea, eskumena daukan administrazioaren aurrean egin

beharreko izapideei dagokienez, edo jarduera edo ikuskizuna aurrera eramateko epe, baldintza edo betekizunei dagokienez, eta ez be tetze hori ez baldin badago arau-hauste larri edo oso larritzat tipifikatuta.

59. artikulua. Erantzuleak

1. Lege honetan aurreikusitako arau-hauste administratiboen erantzuleak dira bertan tipifikatutako egintzak edo ez-egintzen egile diren pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta arau haustea arauak ez betetze hutsa bada ere.

2. Erantzule indibidual bat baino gehiago baldin badaude, eta ezin bada zehaztu bakoitzak zenbateko eskua izan duen arau-haustean, denak hartuko dira erantzulezat.

II. KAPITULUA. ZEHAPENAK

60. artikulua.- Arau-hauste oso larriak egin ondorengo zehapenak

1. Arau-hauste oso larriak, izaeraren arabera, errepikatu egiten direlako edo bereziki ondoriotsuak direlako, jarraian adierazten diren zehapenetako batekin edo gehiagorekin zeha daitezke, zehapenak batera edo banaka jarritz:

a) 30.001 - 150.000 euro bitarteko isuna.

b) Ekintza edo ekintzak bertan behera uztea edo debekatzea, urtebete eta egun batetik hiru urtera arte.

c) Lokala edo establezimendua itxi eta zigilatzea, urtebete eta egun batetik hiru urtera arte.

d) Emandako baimena edo lizentzia kentzea.

e) Ekintza bera egiteko edo jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzeke edo sustatzeko gaitasunik gabe uztea sei hilabete eta egun batetik hasi eta urtebete eta sei hilabetera arteko epean, gehienez.

f) Jarduerarekin lotutako ondasunak konfiskatzea, edo desegitea, hala badagokio, sei hilabetetik hasi eta urtebete arte, gehienez. Baimenik gabe edo erantzukizunpeko adierazpenik gabe egindako jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kasuan, ezin baldin bada b), c) eta d) idatz zatietan zehaztutako zehapenak jarri, konfiskatzea mugagabea izan daiteke; bereziki, antolatzaileak ez baldin badira inon agertu edo antolatzaileek ez baldin badute ordaindu nahi ezarritako diruzko zehapena.

2. Halaber, lehenengo idatz zatian jasotako zehapenen osagarri, neurri hezitzaileak ezarri ahal izango dira; hala nola, gizartearen onurarako

prestazioak, edo hezkuntza-, prestakuntza-, kultur eta antzeko programetan parte hartzea.

61. artikulua.- Arau-hauste larriak egin ondorengo zehapenak.

1. Arau-hauste oso larriak, izaeraren arabera, errepikatu egiten direlako edo bereziki ondoriotsuak direlako, jarraian adierazten diren zehapenetako batekin edo gehiagorekin zeha daitezke, zehapenak batera edo banaka jarritz:

- a) 1.201 eurotik hasi eta 30.000 euro bitarteko isuna.
- b) Jarduera edo jarduerak bertan behera uztea edo debekatzea, gehienez ere, urtebetez.
- c) Lokala edo establezimendua itxi edo zigilatzea, gehienez ere urtebetez.
- d) Jarduera bera egiteko edo jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatu edo sustatzeko gaitasuna kentzea, gehienez ere sei hilabetez.
- e) Konfiskatzea, gehienez ere sei hilabetez. Konfiskatzea mugagabea izan daiteke, 60. f) artikuluan zehaztutako inguruabarrak gertatzen badira.

2. Halaber, lehenengo idatz zatian jasotako zehapenen osagarri, neurri hezitzaileak ezarri ahal izango dira; hala nola, gizartearen onurarako prestazioak, edo hezkuntza-, prestakuntza-, kultur eta antzeko programetan parte hartzea.

62. artikulua.- Arau-hauste arinak egin ondorengo zehapenak

1. Arau-hauste arinak jarraian adierazten diren zehapenetako batekin edo gehiagorekin zeha daitezke, zehapenak batera edo banaka jarritz:

- a) Ohartarazpena
- b) 1.200 eurora arteko isuna .
- c) Neurri hezitzaileak; hala nola, gizartearen onurarako prestazioak, edo hezkuntza-, prestakuntza-, kultur eta antzeko programetan parte hartzea.

63. artikulua.- Zehapenak mailakatzea

1. Araua haustea eragin duten egintzen larritasunaren arabera proportzionalak izan behar dutenez zehapenek, honen arabera mailakatuko dira:

- a) Arau-haustearen ondorio ekonomikoak eta sozialak.

- b) Arau-haustek pertsonen segurtasuna zenbateraino arriskatu duen.
 - c) Pertsoneri eta ondasunei eragin zaizkien kalteak, kualitatiboak nahiz kantitatezkoak.
 - d) Behin baino gehiagotan gertatu izana. Hau da, urtebetean arau-hauste bat edo gehiago egin izana, izaera eta larritasun berekoak edo bestelakoak, administrazio-bideko ebazpen irmo bidez zehatu direnak.
 - e) Araua haustean zabarkeriaz edo nahita jardun den.
 - f) Lege-xedapenak betetzeko jarrera ona izatea, zehapen-espeditentea bukatu aurretik egindakoa konpontzeko neurriak hartuta.
 - g) Legearen bizkar irabazirik atera den.
2. Irizpide hauek ez dira aplikatuko, arau-haustearen larritasuna areagotzeko erabili baldin badira.
3. Arau-hausteari araua haustea ez dakion onuragarriagoa izan arauak betetzea baino, zehapen ekonomikorik jartzen bazaio, aukera egongo da legearen bizkar lortutako irabazia bera ere gehitzeko isunari.

III. KAPITULUA. PRESKRIBATZEA ETA IRAUNGITZEA

64. artikulua.- Arau-haustek preskribatzea

- 1. Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatzen dira; arau-hauste larriak, bi urtera, eta arau hauste arinak, urtebetera.
- 2. Arau-haustek preskribatzeko epea arau-haustea egin den egunetik bertatik hasten da. Arau haustea zerbait luzaroan egiten den ekintza batetik sortutakoa bada, kontatzen hasteko aurreneko eguna ekintza amaitu den eguna izango da, edo arau-haustea gauzatu den azkeneko ekitaldia.
- 3. Arau-hausteen preskripzio-epea ez da zenbatzen jarraituko, zehatzeko prozedura hasten bada, interesdunari jakinarazita. Ustezko erantzuleari ezin egotz dakiokeen arrazoiren bat dela eta, zehatzeko espeditentea hilabetetik gora geldirik bada, jarraitu egingo da preskripzio- epea zenbatzen.

65. artikulua.- Zehapenak preskribatzea

- 1. Arau-hauste oso larriei jarritako zehapenak hiru urtera preskribatzen dira; arau-hauste larriei jarritakoak, bi urtera, eta arau-hauste arinei jarritakoak, urtebetera.

2. Zigorra jartzea agintzen duen ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen zigorraren preskripzio-epea.

3. Zehapenen preskripzio-epearen zenbaketa geratu egingo da, betearazteko prozedura hasten bada, interesduna jakitun dela. Arau-hausleari ezin egotz dakioken arrazoiren bat dela eta, prozedura hori hilabetetik gora geldirik badago, jarraitu egingo da epea zenbatzen.

66. artikulua. Prozedura iraungitzea

Zehatzeko prozedura ebatzi eta ondoren interesdunari jakinarazi behar zaio ebazpena; gehienez ere prozedura hasi zenetik urtebetera, non eta ez den egunen kontaketa eten, EAEko herri-administrazioen zehatzeko ahalaren legeak ezarritako gorabeheraren bat gertatu delako. Epe hori pasatuta, orduantxe iraungitzen dira egintzak, aipatutako lege horren arabera.

IV. KAPITULUA.ESKUMENA ETA PROZEDURA

67. artikulua.- Zehatzeko ahala erabiltzeko eskumena duten organoak

1. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera ikuskaritzako eta kontroleko eskumena esleituta duen administrazioari dagozkion organoek izango dute eskumena establezimendu publikoetan edo ikuskizun eta jolas-jardueretan egindako arau-hausteak zehatzeko espedienteak abiarazi, izapidetu eta ebazteko.

2. Ikuskizunetan eskumena duen sailak gauzatzen du Eusko Jaurlaritzaren zehatzeko ahala, honako eskumen hauen arabera:

a) Ikuskizunen arloko eskumenak dituen zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzak ebatzi beharreko zehapen-espedienteak abiarazi edo izapidetzeko eskumena dauka.

b) Ikuskizunen arloko zuzendaritza eskudunak dauka eskumena arau-hauste arin eta larriak zehatzeko.

c) Ikuskizunen eskumena duen sailburuordetzari dagokio 60.000 euro arteko isuna daukaten oso arau-hauste larriak zehatzea, eta urte eta erdi arteko gainerako zehapenak ezartzea.

d) Ikuskizun-arloko eskumenak dituen saileko sailburuari dagokio oso arau-hauste larriei dagozkien gainerako zehapenak jartzea.

3. Zehapen-prozeduraren edozein fasetan, ebatzi behar duen organoak uste badu badagoela zentzurik berari zehatzea ez dagokion arau-hauste bat egon dela pentsatzeko, horren berri emango dio horretarako eskuduntzat jotzen duen

organoari, eta, halaber, ordura arte egindako jarduerak guztiak helaraziko dizkio.

4. Aurreko ataletan ezarritakoaren kalterik gabe, baldin eta udalerrri bat, zehapen-ahalmena gauzatzeko eskumena izanik ere, inhibitzen bada arau-hausteak jazartzeaz, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek behar diren neurriak hartuko dituzte, udalerrriaren kontura eta haren ordeaz arau-hauste horiek jazartzeko .

5. Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek eta toki-administrazioek izapideturiko espedienteen berri eman behar diote elkarri, espedientea abiaraztea erabaki eta hurrengo hamar eguneko epean.

68. artikulua.- Prozedura zehatzailea

Lege honetan jasotako arau-hausteen ondorioz abiarazten eta ebazten diren zehapen- espedienteak EAEko Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehapen-ahalaren otsailaren 20ko 2/1998 Legeak aurreikusitako prozeduraren bitartez izapidetuko dira, edo, horren ordeaz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bitartez.

69. artikulua.- Behin-behineko neurriak

1. Zehapen-espedienteak abiarazteko organo eskudunek badaukate ahalmena, prozeduraren edozein unetan, interesdunei beren adierazpenak egiteko bost eguneko epea eman ondoren, eta ebazpen arrazoituaren bidez, behin-behineko beharrezko neurri egokiak ezartzeko, ebazpena benetan eraginkorra izango dela bermatzeko edo prozedurari edozein oztopo jartzea saihesteko, arau-haustearen ondorioak ez luzatzeko eta pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

2. Behin-behineko neurri horiek proportzionalak behar dute izan egindako arau-hausteen larritasunarekiko eta izaerarekiko, eta horren arabera, hauek izan daitezke:

a) Lizentzia edo baimena kentzea.

b) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera bertan behera uztea edo debekatzea.

c) Jendearentzat irekitako establezimendua aldi baterako ixtea, zigilua jarrita.

d) Jendaurreko ikuskizunarekin edo jolas-jarduerarekin lotutako ondasunak konfiskatu edo zigilatzea.

e) Sarrerak eta bigarren eskuko salmentako edo baimenik gabeko salmentako sarrerak konfiskatzea.

f) Fidantza jarraraztea.

g) Egoera bakoitzean beharrezko, egoki edo neurritzotzat jotzen diren beste neurri batzuk, betiere jendearen segurtasuna eta jendearentzat irekitako establezimenduen edo lekuen segurtasuna babestu aldera.

3. Prozedurak irauten duen bitartean, administrazioaren kabuz zein interesdunak eskaturik, behin-behineko neurriak kendu edo aldatu ahal dira, baldin eta neurriak hartu zirenean kontuan hartu ezin ziren gorabeherak gerora azaltzen badira. Edonola ere, bertan behera geratuko dira behin-behineko neurriok, neurriak ezartzea eragin duen zehapen-prozedura bera amaituko duen ebazpena ematearekin batera.

70. artikulua.- Funtzionario ikuskatzaileek salbuespenezko kautelazko neurriak hartzea

1. Salbuespenetan, arau-haustearen ondorioak ez luzatzeko eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, beharrezkoa izan liteke kautelazko neurriak hartzea berehalakoan. Halakoetan, ikuskatze-lanetan ari den funtzionarioak, arau-haustea izan daitekeen urraketaren berri izan bezain pronto, ahalmena izango du, interesdunei beren adierazpenak ematen utzi gabe ere, kautelazko neurriak ezartzeko.

2. Funtzionarioek proportzionaltasunez jokatu behar dute, eta, egindako ikuskatze-lanaren ondoren bete beharreko aktan argi adierazi beharko dute zein kautelazko neurri hartu dituzten, bai eta neurriok hartzeko arrazoia eta helburua zein izan diren ere.

3. Artikulu honek arautzen dituen kautelazko neurriak ezarri direnetan, berehalakoan abiarazi beharko da neurrioi dagokien zehapen-espeditentea; hala, abiarazteko egintza horretan bertan, zehatzeko eskumena daukan organoaren titularrak neurri horiek atzera bota, luzatu edo aldatuko dituen erabakiko du, ondo oinarrituta, eta, segidan, aurreko artikuluko lehenengo paragrafoan zehaztutako alegazioak izapidetzeari ekingo zaio.

4. Artikulu honi jarraikiz hartutako kautelazko neurriak hartu zirenetik lau egun pasa ondoren, neurrioi dagokien zehapen-espeditentea irekitzen ez bada, kautelazko neurri horiek baliogabetuta geratuko dira.

71. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen erregistroa

1. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren arloko arau-hausteen eta zehapenen administrazio-erregistroa sortuko da honen bidez. Bertan jaso behar dira idatziz, jendaurreko ikuskizunetan, jolas-jardueretan eta establezimendu publikoetan egindako arau-hauste guztiak, bai eta arau-hauste horiei bide administratiboan emandako ebazpen irmo bidez ezarritako zehapenak ere; idatzi-oharren araubiderako nahiz erregistroaren antolamendu eta

funtzionamendurako zehaztutako baldintzetan jaso ere, eta datuak babesteko legeak agindutakoa betez.

2. Erregistro hori Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen eskumena duen zuzendaritzaren pean egongo da, eta arau bidez zehaztuko da nola antolatu eta funtzionatuko duen. Arau horrek argi ezarriko du, halaber, prozedurak abiarazteko eta zehatzeko eskumena daukaten organoen artean informazioa nola helarazi eta banatuko den.

3. Arau-hauste batzuei jarritako zehapena bertan behera utzi bada, arau-hauste horiek ez dira kontuan hartuko arau-hastea berriro egin ote den edo horretan berriz erori ote den zenbatzeko orduan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Kiroleko indarkeriaren kontrako estatuko arauen aplikazioa

Egintza bat aldi berean lege honetan xedatutakoaren arabera eta kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren kontrako estatuko araudiaren arabera legez zehatzeko modukoa baldin bada, bigarren kasuko araudia ikuskizunen arloan horretarako eskumena daukan saileko organoek aplikatuko dute, espezialitate-printzipioa betez eta agindu larrienak zein diren kontuan izanda.

BIGARRENA.- Agirien eredu normalizatuak

Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen sailak jendaurreko ikuskizun bat edo jolas-jarduera bat antolatzeko edo establezimendu publiko bat irekitzeko behar diren dokumentuen eredu normalizatuak argitaratu ahalko ditu, hau da: aldez aurreko jakinarazpenak, erantzukizunpeko adierazpenak, lizentziak eta baimenak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENGOA.- Araubide iragankorra.

Lege hau garatzeko arauak indarrean jarri bitartean, gaur egun indarrean daudenak aplikatuko dira, lege honetan esaten denaren kontra ez baldin badoaz behintzat.

BIGARRENA. Lizentziak eta baimenak

Lege hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako lizentzia- eta baimen-eskaerak erregulatzeko, eskatu ziren garaian indarrean zeuden arauak hartuko dira kontuan; baina horrek ez du esan nahi ez dutenik bete behar pertsonen eta

ondasunen segurtasunari eragiten dieten baldintza teknikoak eta herritarren elkarbizitzari eragiten diotenak, lege honetan ezarritakoaren arabera bete beharko dira eta.

HIRUGARRENA.- Baimendutako edo gaitutako zerbitzuak ematen dituztenei legea nola aplikatu

Lege honen xedapenek aurretik eskuratu beharreko administrazio-baimenaren araubidearen ordeztu, erantzukizunpeko adierazpena edo aldeztu aurreko jakinarazpena ezartzen dute, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren arloan zerbitzu-jarduerak jarri eta emateko bidetzat. Xedapen horiek baimendutako edo gaitutako pertsonari eta enpresei aplikatuko zaizkie; horretarako, jakin behar da emandako baimenak edo gaikuntzak, zuzenean eta besterik gabe, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa ordeztuko dituela.

LAUGARRENA.- Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua

Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluari berriari aplikatu behar zaion araubidea arau bidez garatu bitartean, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legearen VI. kapituluko arauak izango dira bete beharrekoak, Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren osakerari eta funtzionamendu araubideari dagokionez.

BOSGARRENA.- Fidantzen zenbatekoa

Honenbestekoak dira lege honetako 36. artikulua araberako jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzen dituztenek jarri beharreko fidantzak, legearen 3. artikulua aurreikusten duen arau-garapena gertatzen ez den bitartean, eta baimendutako gehieneko jende kopuruaren arabera:

- a) Gehienez ere 700 pertsona biltzeko aurreikusitako ikuskizunak edo jolas-jarduerak: 6.000 euro.
- b) 700 eta 2.500 arteko pertsona biltzeko aurreikusitako ikuskizunak edo jolas-jarduerak: 15.000 euro.
- c) 2.500 pertsona baino gehiago biltzeko aurreikusitako ikuskizunak edo jolas-jarduerak: 60.000 euro.

SEIGARRENA.- Zehapen-espeditentak

Lege hau indarrean jarri aurretik abiarazitako zehapen-espeditentak abiarazi ziren garaian indarrean zegoen arauaren arabera arautuko dira, non eta ez den gertatzen lege honetako aginduak ustezko arau-hausleen aldekoagoak izatea.

ZAZPIGARRENA.- Legea barrakei eta azoketako atrakzioei legea nola aplikatu.

Barraken eta azoketako atrakzioen titularrek 40. artikuluan aipatzen den dokumentazio teknikoa eduki ezean, urtebeteko epea izango dute, lege hau indarrean hasten denetik, dokumentazio hori eskuratzeko. Teknikari tituludun eskudun batek egina izan beharko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabetuta geratu da Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas-jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legea, bai eta lege honetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo maila baxuagoko arau guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Tasa eta prezio publikoen legearen aldaketa

1.- Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuko 104. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«104. artikulua.- Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitate bihurtzen da honako zerbitzu hauek ematea:

- a) Barrunbe itxietan kirol- nahiz jolas-ekitaldiak, jaiak, dantzak, gau-festak, musika- kontzertuak eta jaialdiak baimentzea.
- b) Zezen-ikuskizunak baimentzea.
- c) Establezimendu publikoen irekitze- eta ixte-ordutegiak handitzea baimentzea.
- d) Txartelen birsalmenta baimentzea.
- e) Arauz eskatutako liburuen zuzemenak egitea eta agiriak konpultsatzea.
- f) Ikuskizun-prozeduretan Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak egindako aditu- edo teknikari txostenak eratzea.

g) Indarrean den araudian ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzea, baimenik behar ez duten jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak direnean.»

2.- Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuko 107. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"107. artikulua.- Kuota.

Tasa honako tarifa honen (eurotan) arabera eskatuko da:

1.	Ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzea.	
1.1	Ikuskizunak eta jolas-jarduerak baimentzea:	51,27
1.2	Artifizio piroteknikoen jaurtiketa:	136,69
2.	Zezen-ikuskizunak baimentzea.	
2.1	Zezen-ikuskizun orokorrak:	273,37
2.2	Ohiko zezen-ikuskizunak:	51,27
2.3	Beste zezen-ikuskizun batzuk	51,27
2.4	Zezen-plaza iraunkorrak berrirekitzea baimentzea	210,12
3.	Ordutegiak eta ikuskapenak.	
3.1	Ordutegiak handitzea.	
3.1.1	Kasu eta data zehatzetarako:	68,56
3.1.2	Hiru hiletik gorako aldietarako:	170,88
4.	Txartelen birsalmenta baimentzea:	68,35
5.	Arauz eskatutako liburuen zuzemenak egitea eta agiriak konpultsatzea.	
5.1	Liburuen zuzemenak egitea. 100 orriko edo horren zatiko:	17,086822
5.2	Agiriak konpultsatzea. Lehen 10 orriak:	3,417364
	Gainerakoak, 0,335035 euroan, konpultsatutako orri bakoitzeko.	
6.	Ikuskizun-prozeduretan Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak egindako aditu-edo teknikari-txostenak eratzea.	44,43
7.	Indarreko araudian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, baimenik behar ez duten jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren kasuan:	51,27».

3. VI. kapitulu berri bat eransten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuko V. tituluari, eta honela geratzen da idatzita:

«VI. Kapitulu. Ertzaintzak ematen dituen zerbitzu bereziengatik ordaindu beharreko tasa

111 septies artikulua.- Zergapeko egitatea

Tasa honen zergapeko egitate bihurtzen da Ertzaintzak zerbitzuak ematea, zerbitzuok bereziki pertsona edo erakunde jakin batzuen onerako badira, edo,

haien onerako ez izanda ere, modu berezi batean eragiten badiete, betiere azken kasu horretan aipatu pertsonok eta erakundeok motibatuta etorri bada, zuzenean edo zeharka, Ertzaintzaren jarduera, honako kasu hauetan:

a) Estadioetan eta kirol-aretoetan egindako izaera profesionaleko kirol-ekitaldiengatik eta tokion inguruetan, sarbideetan eta barruan egin beharreko zaintza- eta babes-zerbitzuak, hala nola zaleen eta kirol-elkarteen eskolta- eta laguntze-zerbitzuak.

b) Kultura-, kirol- edo jolas-ekitaldien inguruetan, sarbideetan eta barruan egiten diren zaintza bereziko eta babeseko zerbitzuak; musika-kontzertuetan, jaialdietan, azoketan eta beste batzuetan ematen dira zerbitzuok, gobernu-agintaritzak irizten dionean polizia- antolakuntza bat behar dela, haiek ordenarako eta segurtasunerako duten arriskua ebaluatu ondoren.

c) Filmazio zinematografikoetan, publizitatekoetan, telebistakoetan edo beste batzuetan Ertzaintzak egindako arautze-lana eta zainketa, espazio eta bide publikoetako zirkulazio normalari eta bideon erabilgarritasunari eragiten zaionean, betiere arlo horretan udalek dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

d) Hiri arteko bideei eragiten dieten edo hiri barrukoetan eragin hadiagoa duten kirol-proben eskolta, zaintza eta babestea, udal-eskumenei kalterik egin gabe.

111 octies artikulua.- Subjektu pasiboa

Honako hauek dira tasa ordaindu behar duten subjektu pasiboak: ekitaldiak antolatzen dituzten eta zerbitzua ematea dakarten edo zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

111. novies artikulua.- Noiz sortzen den tasa ordaindu beharra

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen hasteko unean gertatuko da, eta dagokion kide kopurua irtetearekin etorriko da bat.

111. decies artikulua.- Kuota

1. Kuota zehazteko, bi hauek hartuko dira kontuan: alde batetik, zerbitzua ematen parte hartzen duten funtzionarioen kopurua, eta, bestetik, zerbitzua ematen funtzionario bakoitzak emandako denbora.

2. Funtzionarioko eta orduko 31 euroko tarifa aplikatuta eskatuko da tasa.

Ordu zatien kasuan, aurreko tarifan jasotako zenbatekoak modu proportzionalan aplikatuko dira. Honako hauek izango ditu barne, ekitaldi-egun bakoitzeko, likidatu beharreko gehienezko denborak: ekitaldiaren iraupen osoa, eta, hala badagokio, hura hasi aurreko eta amaitu ondoko ordua. Muga hori ez

da aplikatuko eskolta-zerbitzuak zein zaleei eta klubei laguntzeko zerbitzuak likidatzerakoan.

3. Tasaren likidazioan, 19. artikuluan ezarritakoaz gainera, honako hauek zehaztu beharko dira: esku hartu duten funtzionarioak, erabilitako denbora eta indarreko tarifaren zenbatekoa.

111. undecies artikulua.- Salbuespenak

Salbuetsita daude tasa ordaintzetik, 111 septies artikuluko b) eta d) idatz-zatietan jasotako kasuetan, antolatzaileak, baldin eta haiek toki-erakundeak badira, edota ekitaldira sartzeagatik sarrerarik kobratzen ez duten edo telebista-emankizunetako eskubideengatik finantzatzen ez diren irabazi-asmorik gabeko erakundeak badira.

BIGARRENA.- Isunen zenbatekoa eguneratzea

Gobernu Kontseiluak indize ofizialen bidez eguneratu ditzake, edo behar bezala justifikatutako egokitasun-irizpideen bidez berrikusi, lege honetan jasotako isunen zenbatekoak.

HIRUGARRENA.- Indarrean sartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

Jendaurreko ikuskizunen, jolas-jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa

I.- JENDAURREKO IKUSKIZUNAK

1. Zinema-ikuskizuna.
2. Antzerki-ikuskizuna.
3. Musika-ikuskizuna.
4. Zirku-ikuskizuna.
5. Zezen-ikuskizuna.
6. Kirol-ikuskizuna.
7. Erakustaldia.
8. Ikuskizun piroteknikoak eta su artifizialak.
9. Arautu gabeko ikuskizuna: dituzten ezaugarriengatik edo nolakotasunagatik, emandako araudietan bildu ezin daitezkeen ikuskizun berezi edo salbuespenezko batzuk; edo, zenbait kasutan, katalogo honetan zehaztuta eta berariaz jasota ez egonik, jendaurrean lokal itxietan edo aire zabalean egiten direnak.

II.- JOLAS-JARDUERAK

1. Zori, apustu eta ausazko jokoak.
2. Dibertsio-jokoak.
3. Jolas-atrakzioak.
4. Herri-zezenketak.
5. Uretako jolas-jarduerak.
6. Ostalaritzako eta aisialdiko jarduerak.
7. Catering-jarduerak.
8. Kultura- eta gizarte-jarduerak.
9. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoak.

10. Herri-jaiak edo jai tradizionalak.

11. Kirol-jarduerak.

12. Arautu gabeko jolas-jarduera: bere ezaugarriengatik edo nolakotasunagatik, emandako araudietan bildu ezin daitezkeen ikuskizun berezi edo salbuespenezkoa, edo, zenbait kasutan, katalogo honetan berariaz jasota ez egonik, jendaurrean lokal itxietan edo aire zabalean egiten dena.

III. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK

A. JENDAURREKO IKUSKIZUNETAKO ESTABLEZIMENDUAK

1. Kultura- eta arte-ikuskitunak:

1.1. Zinemak :

- a) Zinema tradizionalak.
- b) Areto askoko zinemak.
- c) Udako zinemak edo aire zabalekoak.
- d) Auto-zinemak.
- e) Zineklubak.
- f) X zinemak .

1.2. Antzokiak:

- a) Betiko antzokiak.
- b) Aire zabaleko antzokiak.
- c) Aldi bateko antzokiak.
- d) Kafe-antzokiak.

1.3. Entzunaretoak :

- a) Betiko entzunaretoak.
- b) Aire zabaleko entzunaretoak.
- c) Entzunareto aldi batekoak.

1.4. Zezen-plazak:

a) Zezen-plaza finkoak.

b) Zezen-plaza eramangarriak.

b) Zezen-plaza aldi batekoak.

d) Aisialdiko zezen-plazak.

1.5. Biltzarretako pabilioiak:

a) Pabiloi finkoak.

b) Pabiloi aldi batekoak.

1.6. Kontzertu-aretoak.

1.7. Erakusketa- eta hitzaldi-aretoak.

1.8. Erabilera anitzeko aretoak.

1.9. Kultura-etxeak.

1.10. Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

2. Aisialdi- eta jolas-ikuskizunak:

2.1. Ikuskizun-kafetegia.

2.2. Ikuskizun-jatetxea.

2.3. Z i r k u a k :

a) Zirku finkoak:

b) Zirku aldi batekoak.

2.4. Feria-pabiloiak.

2.5. Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

3. Kirol-establezimenduak:

a) Estadioak.

b) Pilotalekuak.

c) Lasterketa-zirkuituak.

- d) Kirol-pabiloiak.
- e) Kirol-ikuskizunetako aldi bateko instalazioak.
- f) Aldi baterako hipodromoak.
- g) Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

4. Beste establezimendu batzuk , dituzten ezaugarriak direla eta, ez badira aurreko ataletan sartzeko modukoak.

B. JOLAS-JARDUERETAKO ESTABLEZIMENDUAK:

1. Joko-establezimendu eta -lokalak:

- a) Kasinoak.
- b) Bingo-aretoak.
- c) Joko-aretoak.
- d) Apustu-etxeak.
- e) Hipodromoak.
- f) Kanodromoak.
- g) Jokoaren arloko sektore-araudian ezartzen diren beste lokal eta instalazio batzuk.

2. Jolas-establezimenduak:

- a) Dibertsio-jokoetako aretoak.
- b) Ziberaretoak eta ziberkafetegiak.
- c) Aisialdirako eta jolaserako zentroak.
- d) Bolatokiak.
- e) Haurren ospakizunetarako aretoak.
- f) Ur-parkeak.
- e) Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

3. Jolas-atrakzioetako establezimenduak:

- a) Jolas-parke eta parke tematikoak.

- b) Haurren parkeak.
- c) Azoketako atrakzioak.
- d) Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

4. Kirol- eta jolas-establezimenduak:

- a) Kirolguneak.
- b) Gimnasioak.
- c) Igerileku publikoak.
- d) Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

5. Dantza-establezimenduak:

- a) Dantzalekuak.
- b) Diskotekak.
- c) Gazteentzako diskotekak.
- d) Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

6. Kultura- eta gizarte-jarduerako establezimenduak:

- a) Museoak.
- b) Liburutegiak.
- c) Ludotekak.
- d) Bideotekak.
- e) Hemerotekak.
- f) Erakusketa-aretoak.
- g) Hitzaldi-aretoak.
- h) Erakusketatako eta biltzarretako jauregiak.
- i) Liburu-azokak.

Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.

7. Herri-azoketako eta -dantzaldietako esparruak:

- a) Udal ekimeneko herri-azoketako eta -dantzaldietako esparruak.
 - b) Ekimen pribatuko herri-azoketako eta -dantzaldietako esparruak.
- 7.1. Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.
8. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak:
- a) Parke zoologikoak:
 - b) Akuarioak.
 - c) Terrariumak.
 - d) Parke eta lekune botanikoak.
 - e) Parke edo lekune geologikoak.
 - f) Parke edo lekune arkeologikoak.
- Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.
9. Ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduak:
- a) Jatetxeak.
 - b) Autozerbitzuak.
 - c) Kafetegiak.
 - d) Tabernak.
 - e) Taberna-kioskoak.
 - f) Taberna bereziak, pubak eta musika-tabernak.
 - g) Txoko eta elkarte gastronomikoak.
 - h) Txosnak.
- Aipatutakoen antzekoak diren beste lokal eta instalazio batzuk.
10. Klub bereziak .
11. Aisialdirako eta jolaserako establezimenduak:
- a) Erretzaileen elkarte pribatuak.
 - b) Gazteen lokalak.

12. Beste establezimendu batzuk, dituzten ezaugarriak direla eta, ez badira aurreko ataletan sartzeko modukoak.